

uk

220. zenbakia / 2012ko urriaren 9a



# URTERO 20€

**Urtero** UK aldizkariaren 20 zenbaki  
**Urtero** Uribe Kostan gertatzen denaren berri  
**Urtero** eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean  
**Urtero** argazki zahar eta barriak  
**Urtero** zure proiektuak lau haizetara  
**Urtero** 20 euro

**uk**  **Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.**

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz) **neuk ere gura dot** **UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz**



## Dacia Lodgy berria

### Monobolumen handi bat

# 9.700€-tik aurrera<sup>1</sup>

Aukeran 5 edo 7 plazakoa  
 GPS nabigatzailea inkorporatuta  
 Mailetategiaren edukiera: 2.600 dm<sup>3</sup>

**3URTEKO**  
BERMERA EDO  
100.000 km

**Dacia España** **Dacia ESP**


[www.dacia.es](http://www.dacia.es) / 902 245 200 | **Zure Renault Dacia kontzesioan aurkitu ezazu.**

**1.)** Adierazitako PSP penintsulan eta Balearretan da baliagarria 12/10/31ra arte, Lodgy Base 1.6 60 kw (85 ZP) modeloa erosteko, zergak barne. RCI Banqueko Espainiako sukurtsalarekin lotutako finantzatze deskontua sartzen da. Ekipamenduak bertsoaren araberakoak dira. Argazkiko modeloa: Lodgy Laureate TCE 85 kw, 16"-ko hagunekin; gomendatutako PSP: 14.632 €. **2.)** Lehen bi urteetarako bermea kilometraje-mugarik gabea da. Bigarren urtetik aurrera, bi baldintzetako bat gauzatzen denean amaituko da bermea.  
**Dacia Lodgy: kontsumo mistoa (l/100 km) 4,2tik 7,1era arte. CO2 emisioa (gr/km) 109tik 165era bitartekoa.** Dacia recomienda **elf**

**BILBO BERRI** Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. Deustu - Bilbo  
**LEIOA BERRI AUTO** Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta Elkarte  
**HELBIDEA:** Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
**ZUZENDARIA:** Irantzu Sagarmínaga  
**ERREDAKZIOA:** Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gujarrubia, Irantzu Sagarmínaga  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Ziortza Vega  
**KOLABORATZAILEAK:** Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamosas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte  
**MARRAZKILARIA:** Dogan Gozel  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Erika Martinez (944 911 337)  
**FILMAZIOA:** Parima Digital S.L. / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799  
 © Boluntzarreta



### ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

**Bizkaiko Foru Aklundia**  
Diputazio Foral de Bizkaia  
Kulturako Saila  
Departamento de Cultura

## Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Balea Meñakotzen.
6. FACEGUK. Romoko kultur etxearen proiektuari zer deritzozu?
7. LEHEN ETA ORAIN. Alango (Getxo), 70. hamarkada.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Maribe eta Marije Zabala Ugarte.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Irailaren 26ko Greba Uribe Kostan.
28. ARGAZKIA. Ereaga, 1915.
30. BERBETAN. Deiane Arrieta.
34. FOTOGRAFIA. Mikel Martin Villakorta.
40. SAKONEAN. Uribe Kosta, politikarien faktoria.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Zinemaldiaren osteko euskal aukerak.
43. MUSIKA. Taupaka egitasmo barria.
44. LIBURUAK. Ur Apalategi Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoan.
45. KIROLA. Unai Basurko eta Kepa Acero Antartidara bidean.
46. MUNDUKATUAK. Lander Unanue, Txina.

### AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Begetala, piperradagaz.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Getxotik Sondikara, 1952.
54. AITORMENAK.

Azala: Mikel Martin Villakorta

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)




30 Deiane Arrieta

### Berbetan

ELAko Eskumaldeako (Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdea) arduradunagaz egon gara greba ostean.



11 Marije eta Maribe Zabala Ugarte



46 Lander Unanue

## Udazkenean ere euskarari heldu!

# euskara

- Maila guztiak ordutegi desberdinetan
- HABA 3 / EGA larunbat goizetan



Algortako Etorbidea 104  
 48991 Algorta - GETXO Tf. 94 460 66 71

e-mail: [j.a.agirre@euskalnet.net](mailto:j.a.agirre@euskalnet.net)

**Leihatila**

&gt; Amaia Arriaga

**Libratu**

Zaharretetik bidalitako idazkia leitu eta hotzikara batek astindu nau, barren-barreneraino. Labur eta zehatz diote gure senideak botika hau eta bestea behar dituela eta lehenbailehen eroateko. Botika arruntak dira, libratzen laguntzekoa eta eztulantzakoa. Orain arte egoitzan bertan ematen zioten behar zuena, baina aurrerantzean norberaren kontura izango ei da medikuak agindutako botika batzuk erostea. Banekien Madrilen onartua zutela, banekien ezetz esan arren hemen ere aplikatuko zutela, banekien... baina sumindu egin nau halako egoeran dagoenak botikak ordaindu behar izateak. Ez daukala ordaintzeko lain? Izorrai! Daukanak badauka eta besteak hor konpon! Aurrerantzean libratzea ere luxua izango da gurean, luxua ikastea, luxua bizitzea... eta ohituko ei gara luxua barik bizitzen. Bai horixe, astoa ere jan barik bizitzera ohitu zen legez. Libra gaitzen jendea bizimodua zailtzea ofizio eta afizio duten horien atzaparretatik!

**Iritzia**

**Iparraldeari begirako jardunaldiak dira Getxon egunotan, eta horien eta Iparraldearen barri jasotzeko zein hobe Pantxoa Etchegoinen berbak baino?**

# Hitza ahoan, iparra gogoan

“Iparrak galdu gabe”: hitz hauek paregabeak dira, inoiz gaur bezainbat zentzu ez baitute ukan! Iparraldea, ttipia izan arren, euskal kulturaren arragoetarik bat ez ote da izan betidanik? Eta ber denboran, krisia hona, krisia hara, ez ote dugu memento ederretaz baliatu behar, hain

**«Hitzak zubi izanen dira Getxoren eta Iparraldearen artean»**

zuzen iparraren ez galtzeko, gehiago elgar ezagutzeko, gauzen partikatzeko, partaidetza hitzari indar berri baten emaitzeko? Horiek oro ditugu gogoan, iparraldea Getxora etortzean...

Ekimenak egitea ongi da, hauen iraupena lortzea hobeki oraino... dozena bat urte badu orain Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak lan egiten duela Getxoko Udalarekin, euskal kulturaren hitzordu baten eskaintzeko Getxoko jendea.

Bihotzez eskertu nahi ditut, bai Getxoko Udala, bai udaleko lankide guziak, betidanik konfiantza osoan lan egiten baitugu, bakoitza-

ren jakinduria bateratuz egitarauaren aberaste-ko eta ideia berrien garatzeko. Eta nolaz ez kultura gertakari honen apailatzen lagundu gaituzten Getxoko hainbat elkarte.

Hitza da aurtengo Iparrak galdu gabe ekitaldiaren bihotza, Oskar Alegria zinegile eta argazkilari apainak asmatu duen Hitz-Enea erakusketaren bitartez, besteak beste.

Euskararen joritasuna gure paisaien izendatzeko baliatzen dugu: mendi, itsaso, herri, auzo, den mendreneko iturburu, etxe eta etxaldeen izenekin gure izaitea eta sormena hazten ditugu! hitzak izen bilakatzeko dira. Iparraldeko eta Getxoko etxe izen horien berezitasunak eta konparaketak dira argazki erakusketa batean erakutsiak izanen. Funtsean, ez bakarrik erakutsiak, baina ere bertularien bitartez onduak, izenak lotuz irudimenaren bideak jorritzen dituztela.

Halaber Oskar Alegriaren *Emak bakia* deitu filma zoragarriak Biarritze aldeko etxe izen zahar batetik abiatuz, munduan gaindi eramaiten gaitu, amets bat egin bagenu bezala.

Ura duxulutik bezala, elederra jalgiko da ere Ur Apalategi idazlearen ahotik; Omorea ez dugu eskas ukanen Kike Amonarriz eta Pantzo Hirigaray aktore fenomenoekin, hain zuzen iparraldearen eta hegoaldearen arteko hitz ezberdinen bitxikeria zenbait aipatuz. Ahantzi gabe gorputzaren hitza, «Oroitzen naiz» filmaren aurkezpenarekin, belaunaldiz belaunaldi lau dantzari hunkigarri eta miresgarriek aldarrikatu dutena, euskal dantzaren maitez, nola Euskal Herrian, hala Euskal Herriatik kanpo. Getxoko haurrak gogoan ditugu ere, Donibane Lohizuneko Elirale konpainiak eskainiko duen emanaldiari esker.

Ikusten duzuen bezala, egitaraua aberatsa bezain anitza da. Bai, hitzak zubi izanen dira aurtan ere Getxoren eta iparraldearen artean, eta zubi horien azpitik, ur berria jalgi dadila, emanen dugun hitza izan dadin urte guzian elgarrekin obratuko dugun lanaren giltza!


**UK-ko lan-taldea****Pantxoa Etchegoin**  
(Euskal Kultur Erakundeak)**gu geu**

## Barri-barriak

Albiste barri barriak eta hainbat azalpen emoteko baliatuko dugu txoko hau oraingoan. Alde batetik, 46. orrialdean, Elkarrizketa Kulturalagaz txandakatuz, hilean behin irakurri ahalko duzuen MundUKatuak atal barria aurkezten dizuegu. Bertan, munduan zehar dabilzan uribekostar katu ibiltarien barri izango dugu: euren egitekoak eta, euren ahotik, dauden herrialdeen hainbat ezaugarri jasoko ditugu; munduari bira emon arte!

Bestetik, konturatuko zarete hainbat orrialde “zuriz” lotu direla; horren arrazoia hainbat UK kidek irailaren 26an greba egin genuela da, eta aukeratutako hori izan da hori islatzeko modua. Halere, herri-informaziorik ez da faltako, izan ere “zuriz” lotutako orriak beren-beregi UK-ren berezko atal orokorrak dira-eta.

Bestelako iragaki edo jakinarazpen batek ere, 47. orrialdekoak, deituko du hainbaten arreta. Izan ere, bizi dugun egoeran, eta uste dugu zentzuz eta arrazoiz hartutako erabakia dela, aurrerantzean UK etxean jasotzeko harpidetza ordaintzen ez dutenek ez dute postontzian UK-rik jasoko. Halere, UK doan banatzen da kioskoetan eta hainbat gune publikotan (kultur etxeak, ambulatorioak, euskaltegiak e.a.), horrenbestez, horietara hurbilduz eskuratu ahalko dute. Ostera, ekarpen oro “beharrezko” zaigu... Harpide zaitetz!



SOPELA, 2012KO IRAILAREN 15A

**Azken portua** / Irailaren 15ean balea agertu zen Meñakotzeko arroken artean, hilda. Zere txiki (Balaenoptera acutorostrata) espeziekoa eta 4,85 metro luze zen. AMBAR elkarteko lagunak diotenez, ez da oso ohikoa espezie horretako baleak ikustea inguru honetan eta, bere egoeraren arabera, daborduko bizpahiru egun izango ziren hil zela. Elkarteko kide batzuek balearen azal, koipe eta gorputz-atalen laginak hartu zituzten, aztertu eta heriotzaren arrazoia jakiteko. Heriotzagaz topo egin du baleak eta Meñakotzera iritsi: bidaiaren azken portura. ○ / Argazkia: AMBAR elkarteak

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

# Romoko kultur etxearen proiektua geldi dago, zer deritzozu horri eta proiektuari?



Getxo

**Almudena Fernandez Azkue**

> Arkitektoa

Beti egingo nuke kulturaren alde. Onartzen dut murrizketak egon beharra, baina gure diruaren kudeaketa agian ez da izan ona: zergak nora biderratu, lehentasunak ezarri behar dira. Ahalik eta ondoen egin behar da kudeaketa, eta nik lehentasunak gai hauetan ere ezarriko nituzke.



Romo

**Hector Henales**

> Informatikaria

Proiektua gelditzearen kontra nago, krisialdi guztietan kultura baita azkena. Kultura beharrezkoa da poz handiagaz bizitzeko. Kultura ez edukiagatik inor ez da hilko, baina erabat garrantzitsua da bizitza honetan. Romok, auzo txikia izanagatik, zergatik ezin du eduki eraikin potolo bat kulturarako?



Romo

**Begoña Gomez**

> Etxekoandrea

Aurreko kultur etxea bota aurretik erabaki behar zuketzen zer egin. Orain zakarrez eta arratoiz beteta dago lekua. Bestalde, proiektu barria ez dut batere gustuko, modernoegia derizot. Gustuko nuke zer edo zer tradizio handiagokoa: adibidez, baserri bat.



Romo

**Mercedes Aller**

> Etxekoandrea

Auzokideak ez gaude ados proposatutako eraikinagaz: altuegia da, itsusia eta ez dator bat inguruagaz. Eraikin zaharra bota eta umeak jolasteko plaza txikitu da, ezin da kultur ekimenik egin eta zakarrez josita dago. Tokia txukun dezatela eta izan gaitzatela aintzat proiektu barria definitzerakoan.



Romo

**Ines Gonzalez**

> Etxekoandrea

Romok behar duena plaza on bat da, orain ez baitaukagu: bakarrik Gobelak parkekoa, baina ez dago erdigunean. Kultur etxea egin beharra badago eta beste lekurik ez badago, egin dezatela, baina plaza bat ere behar dugu.



Romo

**Pilar Gonzalez**

> Etxekoandrea

Kultur etxean egiten genuen gimnasia, eta beste ekintza asko ere egiten ziren, ikasteko tokia zegoen, baina bota zuten. Barria egin behar zuten, gehiegizkoa zena, baina azkenean ezer ez, orain ezer barik lotu gara: ez lehengoa, ez barria. Kultur etxea egin eta plaza txukundu behar dute lehenbailehen.



## Iraganez doa denbora\* beti / ALANGO (ALGORTA) 70. HAMARKADA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

**uribitakora** > errekan gora



Lamiako, 2012ko iraila

Testua: **Jone Uria** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: Agur Sagar Beltzaran

Bizkaiako zubia  
da ezagunena,  
eskegitan omen da  
munduko zaharrena,  
Unesco-k eman zion  
patrimonio izena.  
Baina barku bat bada  
umilago dena  
haren funtzio bera  
betetzen duena.

Barkuaren sarrera  
(e)ta kartel zabal bat.  
Baina aztertuz argazki  
honen bi atalak:  
salatzen dute bere  
kaskoak, txandalak;  
semaforoa berde  
astinduz pedalak.  
Txirrindulari gutxi  
dira hain formalak.

Nahiz eta kotxea den  
azkeneko moda,  
gure eskualdetik  
(argazkia frogatuta)  
kotxe gabe iritsi  
liteke edonora:  
barkuz ezkeraldera,  
zein errekan gora  
bidegorria segiz  
San Inaziora.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

UK-ko  
hainbat langilek  
bat egin genuen  
grebagaz

**INPRIMATEGIA GARA!**  
1000 gutun-orri + 500 gutun-azal + 200 txartel  
**229€** BEZ kanpo  
Eskaintza berria  
**5 BLOK Debalde**  
Eskaintza uztailaren 15ean bukatuko da  
**Cianoplan**  
GLOBAL PRINTERS  
[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es)

# Soluzioak bizkaitarren esku

## ES TU MOMENTO



# in **BEG** endentzia

Urriak 13, 17:30etan BARAKALDON **EKITALDI NAZIONALA**

ehbildu



**BOZKATU VOTA** ehbildu



“Erreiro egunean jai sorpresa antolatu ziguten seme-alabek, mariatxi eta guzti!”

## Zabala Ugarte ahizpak > 50 urteren ostean, artaziei agur!

**Altxorra** ei da jende askorentzat ulea gura duzun legez mozten dizun ileapaintzailea topatzea. Bada, Algortan altxorraren bila dabilta gizon eta emakume ugari uztaila akabutik, Marije eta Maribe Zabala ahizpek *Marije* ileapaindegiaren pertsiana jaitsi zutenetik, hain zuzen ere: “*Bazen garaia! 50 urte eman ditugu ileapaindegian: zortzi urte Konporten genuen lokal txiki batean eta 41 honetan*”. Marije 14 urteaz hasi zen ileapaintzaile, gustuko baitzuen orrazi eta artazi artean ibiltzea. Laster Maribek bide berari jarraitu zion: “*Aitak esan zigun: ‘Zuk ileapaintzaile izan gura duzu? Bada zuk ere bai, orduan!’*”. Ofizioa ikasteko ez ziren akademia-  
ra joan, baina horrek ez du esan gura formakuntza faltan dutenik. Paris, Londres edo Italiara joan dira orrazkera barriak ikastera: “*Bueltatzean ikasitakoa kontatzen genien bezeroei, eta gehienak proba egitera animatzen ziren. Bezero itzelak izan ditugu*”. Eta kasu egiten al zieten, ostera, bezeroek egiten zizkieten eskaerei? “*Onartu behar dugu lehen apur bat diktadorak ginela, eta sasoi horretan eroaten zena egiten genuela. Hori aldatu da: egun jendeak badaki zer gura duen, baina guk ulearen arabera aholkuak emoten ditugu*”. Aholkuak emon bai, baina artaziak alboratzeko hautua hartu zuten uztailaren 30ean, erreiroa hartu zuten egunean: “*Jai sorpresa antolatu ziguten seme-alabek Paco tabernan, mariatxi eta guzti!*”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

# 30 urte antzerkiz blai

**Antzerki Jardunaldiak** izango dira **urriaren 11tik 21era** eta, daborduko, **30. edizioa** izango da: **13 antzezlanegaz** ospatuko dute urtemuga eta horietako **bost izango dira euskaraz**

**Ondo errotuta daude Antzerki Jardunaldiak Getxon; izan ere, 30. edizioa izango da urriaren 11tik 21era. Aurten 13 obra ikusteko aukera egongo da, horietako bost euskaraz.**

**Antzerki** Jardunaldiek inauguratuko dute Getxoko antzerki denboraldi barria: urriaren 11tik 21era ospatuko dira eta aurtengoa izango da 30. edizioa. Kultur Etxetik esan dutenez, zaletasun guztiak asetzera da jardunaldion helburua eta genero anitzak batuko ditu: adin guztientzat, ateri zabalean zein estalpean. Antzezlanak 13 izango dira: bost helduentzat, beste bost umeentzat eta gainerako hirurak adin guztietakoentzat; 5 izango dira euskaraz: *Txarlestrop*, *Bodologuak*, *Txangoa*, *Asi y Restar* eta *Printzea eta ahatea*. Bestalde, gune bitan egingo dituzte emanaldiak: Areetako Andres Isasi Musika Eskolan eta Algortako Geltokia plazan.

Adinaren arabera sailkatuta, helduentzako eskaintza osatzen dute ondoko lanek: *Bodologuak*, *Este mundo nuestro* eta *La lechuga* komedia lotsagabeek, baita kaleko ikuskizun bik ere: *Sustraiak* eta *Wolves*, azken hori efektu bereziz josita.

Haurrei dagokienez, aukera zabala izango dute: *Txarlestrop* eta *Txangoa* pailazo eta zirko-antzerki lanak; *Blue Bird* eta *Printzea eta ahatea* txotxongilo ikuskizunak; eta *Zoozoom* kale-ikuskizuna.

Azkenik, adin guztietakoentzako lanak ere antzetzuko dituzte: *Amor ciego*, *Carneros* eta *Asi y restar*. Baina goazen egunez egun:



Sarrerak: BBK-ren orotarako kutzazainetan, Algortako Kultur Etxean edo 944 310 310

Urriaren 11n, *Sustraiak* (Simulacro Teatro) Algortan, 21:30ean eta doan. Urriaren 12an, *Txarlestrop* (Zirika Zirikus) Algortan, 13:00etan eta doan; eta *Bodologuak* (Txintxeta produkzioak) Areetan, 20:00etan (sarrera 8/10 euro).

**“Algortako Geltokia plazan eta Areetako Andres Isasi Musika Eskolan izango dira emanaldiak”**

Hilaren 13an, *Amor Ciego* (Teatro Salitre) antzetzuko dute Algortan, 13:00etan eta doan; eta *Este mundo nuestro* (Cobaya Teatro) antzetzuko dute Areetan, 20:00etan (sarrera 8/10 euro). Biharamunean, *Zoozoom* (Markeliñe) eskainiko dute Algortan, 13:00etan eta doan; eta *Blue Bird* (Anita Maravillas)

Areetan, 18:00etan, 4 euroren truke.

Hurrengo asteburuan jarraituko dute jardunaldiek. Urriaren 19an, barikuan, *Wolves* (Deabru Beltzak) antzetzuko dute Algortan, 21:30ean eta doan. Zapatua 20an, barriz, *Txangoa* (Potxin eta Patxin) Algortan, 13:00etan eta doan; eta *La Lechuga* (Glu Glu Producciones) Areetan, 20:00etan (sarrera 8/10 euro). Azkenik, urriaren 21ean, *Carneros* (Organik) eta *Asi y Restar* (Krego y Martin Danza) eskainiko dute Algortan, 13:00etan eta doan; eta *Printzea eta ahatea* (Gorakada) Areetan, 18:00etan eta 4 euroren truke.

Sarrerak erosteko hainbat bide dago: [www.bbk.es](http://www.bbk.es), BBK-ren orotarako kutzazainak, Algortako Kultur Etxea eta Musika Eskola, eta ondoko telefono zenbakiak: 944 310 310 eta 944 914 080. o

## Argi Hizkien erakusketa

Testu-lehiaketak badauzka irabazleak



Info+: [www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak](http://www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak)

**Kito!** ArgiHizkiak lehiaketak badauzka irabazleak eta beraien testuak irakur daitezke erakusketa batean, Algortan. Egizu Getxo euskaldun elkarteak, Getxoko Udalak, Getxophotok eta UK aldizkariak antolatuta dugun I. Getxoko Argazkietan oinarritutako testu laburren lehiaketa izan da ArgiHizkiak, eta eskerrak emon gura dizkiegu parte-hartzaile guztiei.

SMS mailan irabazi du Goizalde Hernando Saratxagak (Mikel Martinez de Osabaren argazkiari idatzitako mezua-gaz), eta testuen mailan Iñaki Vidalek (Konrado Mugertzaren irudiari idatzitako-gaz). Sari gisa, bakoitzak 300 euro jasoko du. Epaila jardun dute Laura Mintegi, Unai Elorriaga, Irati Elorrieta eta Iñaki Frieria idazle getxoxtarrek.

Daborduko, lan irabazleak eta dagoz-

kien argazkiak batzen dituen erakusketa ikus daiteke Algortako Torrene aretoan; urriaren 31 arte egongo dira ikusgai: astelehenetan itxita, astegunetan 11:00-13:00 eta 17:00-20:00, zapatuetan 12:00-14:00 eta 18:00-21:00, eta jai-egunetan 12:00-14:00. Halaber, interneten ere irakur daitezke testuak: [www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak](http://www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak).

Azkenik, ezin aipatu barik utzi ekimen honetan parte hartu duten hamabost argazkilariak: Kepa Acero, Gonzalo Azumendi, Ane Basagoiti, Fatima Diez, Naiara Goikoetxea, Jose Ignacio Lobo Altuna, Juan Luis Markaida, Jose Mari Martinez *Bubu*, Mikel Martinez De Osaba, Oscar Martinez, Konrado Mugertza, Carlos Terreros, Hodei Torres, Peru Urresti eta Pedro Zarrabeitia. o

### ERREKAGANERAKO III. FASEA ONARTU DUTE

Gobela ibaiaren egokitzapen hidrauliko eta ingurumen berreskuratze lanen III. Faseari (Errekagane) dagokion proiektua onartu du Getxoko Udalbatzak, hain zuzen ere, URA-Uraren Euskal Agentziak prestatu eta izapidetutako proiektua. Era berean, “lanak egiteko beharrezkoa den hitzarmena ere ontzat” emon du udalbatzak, “hasiera batean”. Udaletik esan dutenez, “hitzarmenaren arabera URAK hitza emoten du lanak egiteko, eta Udalak, hitza emoten du horiek egiteko beharrezkoak diren lursailak uzteko”.

### IDIAZABAL GAZTAREN ZAPOREA GETXON

Idiazabalgo gazta izango da II. Dastatu Getxoren protagonista, urriaren 1etik 14ra. Getxo Enpresak (Getxo Empresarial y Comercial- Getxo Enpresa eta Merkataritza) elkarteak antolatzen du ekimena eta ostalaritzako 14 establezimenduk parte hartuko du. Zehazki, euren eskaintza gastronomikoaren artean Idiazabal gaztagaz egindako pintxo bat ere sartuko dute, bi astez. Ondokoak dira: Algortan Aterpe, Etxetxu, Salsidu eta Satistegi tabernak, eta Boga zein Ugartena jatetxeak; Areetan Cosmopolita, Green Parrot eta Pianamul tabernak; Negurin Artatza eta Igeretxe hotelak, eta Jolastoki eta Tamarises jatetxeak; eta Romon El Museo taberna. Hurbiltzen zaretenei, on egin!

### MENPEKO PERTSONEN ZAINZAILLEENTZAKO IKASTAROAK

Menpeko pertsonak zaintzen dituztenei zuzendutako ikastaroak eskainiko dituzte Gizarte Zerbitzuek urrian eta azaroan: antsietatea bideratzeko taldeko laguntza psikologiko tailerra (Algortako Urgull kaleko egoitzan), erlaxazio tailerra (Gobelaurre Boluntariotza Zentroan) eta mendeko pertsonen mobilizazio eta transferentzien tailerra (Romoko Lagunduz enpresan). Izena emoteko Herritarrak Artatzeko Bulegoetara jo behar duzu.



**ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!**

**BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA**

**Jorge Alba Enano** > Algortako San Nikolas Ikastolaren 50. urteurrena

“Duela 50 urte hainbat guraso elkartu ziren beren umeez euskaraz ikasi ahal izateko”



Urteurrenaren ospakizunak prestatzen ari den lan-taldea

**1.963 urtean, bederatzi familiak sortu zuten Algortako San Nikolas Ikastola, etxe bateko gela batean, 12 ikaslegaz. Daborduko joan dira 50 urte eta gaur egun ia 1.000 umek ikasten du Arenezpi kaleko eraikinean. Urrezko ezteiak merezi bezala ospatzeko 20 gurasok osatutako taldea ari da antolaketa lanean (diotenez, euren senar-emazteen laguntzari esker ateratzen dute tartea) eta hainbat ekimen prestatzen dabilta ikasturtean zehar garatzeko: mendi irteerak, jaialdiak, bideoa... eta, zelan ez, ikastolako sortzaileei omenaldia.**

—50 urteurrena ospatzera zoazte?

—Hori da, ospatu gura dugu. Bereziki, Ikastolaren hastapenak oroitu gura ditugu, garai zailak izan zirenak: elkartu ziren uste zutelako beren umeez euskaraz ikasi behar zutelako eta gaur egun premiazkoa da Algortan hori zabaltzea, euskararen erabilera sustatzeko. Garrantzitsua da, datozen urteetan matrikulek behera egingo dutela aurreikusten dugu-eta.

—Ez da zuen kasua bakarrik, ikastola guztiak hasi baitziren 60ko urteetan.

—Bai, gurea lehenetakoa izan zen: etxe ba-

tzuetan hasi ziren klaseak euskaraz emoten umeei, apur bat ezkutuan. Handik txalera joan ziren, gero Bidebarrira, eta ondoren egungo eraikinerako, Arenezpi. Eraikin hori ere bikoiztu zen eta, duela urte batzuk, eskolaurrerako eraikina erosi zen; 16 urte arteko hezkuntza eskaintzen dugu.

—Zer ekintza gauzatu duzue?

—Lau ekimen nagusi garatuko dugu. Lehenik eta behin, ahalik eta sortzaile eta langile ohi gehien elkartu gura dugu: hasieran etxeetan ibili zirenak, Bidebarriko eraikinerako eta Arenezpikorako

dirua ipini zutenak, e.a. Omen egingo diegu eta garai bateko Ikastolako Koruak abestuko du eta udabarrian izango da. Bigarren ekimen nagusia izango da *50 urte, 50 mendi* deritzona, laster abiatuko duguna: asmoa da 10 asteburutan igotzea

**«50 mendi igoko dugu, eta azkenengoan jaia egingo dugu: Gorbeian»**

50 mendi eta Ikastolako ikur barriagaz argazkia egitea; horretarako, bost taldetan joango gara. Ekimena Gorbeiaiko gailurrean amaituko dugu ekinean: bost bide-tatik igo eta jaitxoia egingo dugu goian. Bestalde, hirugarren ekimena izango da ikasle ohi eta gazteei begira: Euskal Jaia egingo dugu apirila aldera Algorta erdigunean. Azkenik, ohiko Ikastolako Jaia berezia izango da: potoloagoa eta ikasturte amaieran, Ikastolan bertan.

—Baina bestelako ekimenik egiteko asmoa ere badaukazue, ezta?

—Batetik, bideo edo dokumental txoa prestatzen ari da diseinatzaile eta gidolari talde txoa: elkarrizketak egingo dizkiete bizirik dauden sortzaileei, hastapeneko pertsonari, baita gaurko irakaste eta ikasleei ere. Bestalde, egutegia aterako dugu Ikastolako eta Algortako argazki zaharrakaz, saltzeko eta dirua lortzeko asmoz. Izan ere, ekitaldi guztiak ordaintzeko ez dugu gura gurasoek diru gehiago ipin dezaten. Ildo horretan osatzen ari gara argazki-bilduma bat ere: irudiak biltzen ari gara eta digitalizatuko ditugu. Beraz, Ikastolako argazkiak dauzkatenek ekar ditzatela bulegora. 300 edo 400 irudiz osatutako liburua egingo dugu. Gainera, omenaldi polita ere izango da. ○

[facebook.com/50urteIkastolaSanNikolas](https://www.facebook.com/50urteIkastolaSanNikolas)

## Ondarearen jardunaldiak

Ondarearen Europako Jardunaldiak egiten ari dira urrian: Getxon **12, 13 eta 14an**



Itsasoagaz lotutako istorioa antzetzuko dute Getxon. ARGAZKIA: Euskal Museoa

**Ondarearen** Europako Jardunaldiak ospatzen ari dira Bizkaian, beste behin ere. Uribe Kostako hainbat herritan antolatutako doako jarduerak eta horien artean dago Getxo. Kale-antzerkia dago, eta hurrengo emanaldiak izango dira Areetako Geltokia plazan: urriaren 12an eta 13an, 18:30ean; eta domeka 14an, 13:00etan (Areetako Geltokia plazan).

*Erresak eta barrak. Ezkontze amodiozko, bizitze dolorezko izenburua ipini diote kale-teatroari: “1520 urtea da. Ez da denbora luzea Bilboko Kontsulatuak, Algortako marinelen mesedetan, eta ez Portugaletekoenean, itsasadarreko barra kontrolat-*

*zen duela. Dama getxoztar batek zaldun batez ezkondu behar du, nahiz eta Algortako marinela bat maite duen ezkutuan. Nabigatzailea ere ez da hutsaren hurrengo; aitzitik, pilotua da eta, bere ustez, dama merezi du, hein batean behintzat. Baina, zer egin dezake pilotu kofrade batek elkartzeko eta aurrera egiteko erabakia hartu duten bi leinuren kontra? Zein indar du maitasunak ezkontza-hitzarmen baten aurka?”*

Informazioa gehiago 944 910 800 telefonoan. Gainera, Bizkai osoko jardueren barri daukazu [www.bizkaikoa.bizkaia.net](http://www.bizkaikoa.bizkaia.net) gunean. ○

## ‘IPARRA GALDU GABE’, BADAGO ZER IKUSI

Oraindino badago aukera zenbait ikuskizunegaz gozatzeko ‘Iparrak galdu gabe’ jardunaldien baitan: Ipar Euskal Herriari buruzko jardunaldiak. Alde batetik, ‘Hitz-enea’ erakusketa ikus ahal da Areetako Geltokia plazan urriaren 11tik 14ra bitartean. Bestetik, hitzaldiak eta film estreinaldia izango dira hil honetan zehar: urriaren 17an, hitzaldi umoretsua emongo du Kike Amonarrizek eta Pantzo Hirigaraik Algortako Torrene aretoan, 20:00etan; hilaren 18an, Oskar Alegriaren *Emak bakia* filma estreinatuko dute Torrenen, ordu berean; 23an, literatur solasaldia izango da Algortako Aldai Patronatuan Ur Apalategi idazleagaz, 20:00etan; eta azkenik, azaroaren 4an, *Lodrikoko* umeentzako ikuskizuna eskainiko dute Algortako Kultur Etxean, 11:30 eta 13:00etan. Izan untsa!

## IPUINAK ETA KONTU KONTALARIAK

Hitzordu eder bi daukagu datozen egunotan Algortako Kultur Etxean: umeentzako bata, nagusientzako bestea. Txikientzako izango da ‘Ipuinaren ordua’ urriaren 18an, eguenean, haur-liburutegian eta 18:00etan: *Sorginen kontuak* kontatuko ditu Mariolasek. Biharamunean, barriz, hilaren 19an, nagusientzako ‘Kontalarien kluba’ ikuskizuna izango da, 19:00etan: *Libra* ipuinak kontatuko dituzte. Saio biak izango dira doakoak.

## AKADEMIAK EUSKARAZ

Akademietan euskaraz ikasteko aukera dago aurtan ere Getxon; zehazki, 28 akademiak: eskola-laguntza, musika, dantza, eskulanak, pintura-tailerrak, euskara-ikastaroak eta abar jaso daitezke. Informazio zabalagoa emoteko liburuxka prestatu du Euskara Zerbitzuak. Toki publikoetan eta interneten kontsulta daitezke ([getxo.net/filip/akademik2012/index.html](http://getxo.net/filip/akademik2012/index.html)), eta herriko ikastetxeetan ere emongo dute horren guztiaren barri. GEHI Getxon euskara sustatzeko hitzarmenaren barruan kokatu dute ekimen hau.

# lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59

(Tellagorri plaza)

48991 ALGORTA

Tf. 94 491 14 12

[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



**Amparo Madhu Roman** > Namaste Eskolako zuzendaria eta terapeuta

“Sarri ez gara ondo komunikatzen: ez digute irakatsi emozioak maneiatzen, bai, ordea, erreprimitzen”

**Hezitzaileentzako ikastaro berezia emon zuen Amparo Madhu Romanek urriaren lehen aste akabuan: harremanak, emozioak eta botere pertsonala indartzen ikasi zuten. Namaste Eskolako zuzendaria da Madhu valenciarrak, eta 25 urte daroa ikastaroak eskaintzen. Aitua da familia eta bikote harremanen gaietan.**



Info+: [www.escuelanamaste.com](http://www.escuelanamaste.com)

—Hitz potoloak dira ikastaroaren izenburukoak, zer landu duzue?

—Helburua da ondo ulertzea zer den autoestimua norbanakoan eta heziketan, zelan maneiatu emozioak, zelan garatu trebetasunak elkarren artean komunikatzeko, zelan sortu menpekotasunik gabeko harremanak, beldurrik gabekoak, e.a. Izan ere, botere pertsonala hitz gogorra da, baina ez du esan gura, ez harrokeria, ez norberak bere buruari bakarrik begiratzea; botere pertsonalak zerikusia dauka erabakiak hartzeko gaitasunagaz, bitartekoak abileziak maneiatzeko gaitasunagaz. Bake-harremanak sortzea gura dut ikastaroagaz, harreman onak, eta bizitzaz benetan gozatzea harreman horietan: bizitza harremanak baitira. Emozioak komunikatzeko modu bat dira baina, askotan, ez gara elkarregaz ondo komunikatzen, ez

digutelako irakatsi emozioak maneiatzen; kontrakoa: horiek erreprimitzen irakatsi digute. Horrela, usteak sortzen ditugu eta jarrera batzuetara bultzatzen gaituzte. Horiek gure buruan instalatzen dira, eta garatzen dute pentsatzeko, jokatzeko, erreakzionatzeko eta izateko modu bat. Garatutako uste horien arabera biziko ditugu harremanak zailtasun handiagoaz edo txikiagoaz.

—Hezitzaileei zuzendu zatzaizkie?

—Bai, oraingoaz hezitzaile, irakasle eta gurasoei zuzendu natzaie batez ere. Baloreetan hezitzea da bizitza osasuntsuaren eta betearren funtsa. Emoten ditudan ikastaro guztiak dira praktikoak, zati teoriko bat ere emoten dudan arren: teoria argi eduki behar da, baina garrantzitsua da, ikastaroa jasotzen dutenek, bizipenak barruan ateratzea ikastarotik; izan ere, teoria denboragaz galdu egiten da, baina bizipena betiko gordeta geratzen da. ○

## Euskara Plana abian

Udalak **Euskara Plana** egiteko **prozesua** abiatu du “**herritarrek parte hartzeko**” asmoz



Prozesuan parte hartzeko: 946 072 576 edo [euskerateknikaria@leioa.net](mailto:euskerateknikaria@leioa.net)

**Euskara arloan** datozen bost urteotarako Plan Estrategiko berria definituko du Udaleko Euskara Sailak, hain zuzen, 2013-2017 epealdirako. Horretarako, prozesua garatuko dute datozen asteotan eta Elhuyar Aholkularitza enpresak gidatuko du. Izan ere, datozen urteotako Euskara Biziberritzeko Plan barria diseinatuko, “*herriko eragileak eta herritarrak kontuan hartu gura*” ditu Udalak.

Horrela, “*parte-hartzea eragiten duten zenbait teknika erabiliz, hausnarketarako bideak jarri eta aldaketarako ekintzak lantzeko oinarriak finkatuko*” dituzte. Zehazki, hiru lan-mahaigaz jardungo dute, alorka banatuta: batetik, familia, transmisioa eta euskalduntzea arloa; bes-

tetik, gazteak; eta azkenik, aisia, kirola, kulturgingintza eta teknologia barriak.

Lan-mahai bakoitzagaz bilera bi egingo dute, ordu bikoak. Daborduko burutu dute lehena (urriaren 3an), baina bigarrena egingo dute hilaren 17an, 19:00etatik 21:00etara, Mastitxu Udal Euskaltegian (Iparragirre etorbidea, 78). Hortaz, garaiz zabilta parte hartzeko.

Lehenengo bileran baloratu zuten arlo horietan egindako lana eta kontrastatu zuten diagnostikoa. Hurrengo hitzorduan zehaztuko dituzte datozen urtetarako helburu estrategikoak eta proposatuko dituzte ekintzak. Parte hartzeko idatzi [euskerateknikaria@leioa.net](mailto:euskerateknikaria@leioa.net) helbidera edo deitu 946 072 576 telefonora. ○

## MUSIKA ZIKLO BARRIA KULTUR LEIOAN

Urriaren 19an hasiko da ‘Musika con alma’ zikloa Kultur Leioan, Gau portugaldarragaz. Gauko 21:00etatik aurrera arituko dira Lula Pena abeslaria eta Antonio Zambujo Quintet taldea. Azaroaren 9an, barriz, Gau eskandinaviarra izango da Ketsurat taldeagaz eta Karl Seglem musikariagaz. Hilaren akabuan, 30ean, Gau eskoziarra izango da, eta kontzertua eskainiko dute Lori Watson & The Rule of Three eta Manran taldeek. Araitzeko, Gau flamenkoa eskainiko dute Raul Mico abeslariak eta Las Migas taldeak. Saio guztiak hasiko dira 21:00etan eta sarrera 20 euro kobratuko dute; denboraldi osorako bonoak, barriz, 60 euro balio du.

Info+: [www.kulturleioa.net](http://www.kulturleioa.net)

## DANTZA HITZALDIA HILAREN 18AN

Dantza moderno eta garaikideari buruzko hitzaldi bitxia eskainiko du Toni Jodar dantzariak urriaren 18an, Kultur Leioan, 12:00etan eta 19:00etan; izan ere, dantzatua izango da saioa. Jodarrek bere gorputzaren bitartez erakutsiko du denboraren iragaitea, eta bere esperientzia eta umorea erabiliko ditu izaera pedagogikoa duen performance batean: performancea irakurraldi “*sortzaile eta atsegina bihurtuko da, eta, bertan, klasikotik garaikiderainoko bilakaera agertuko du, gorputzak mugimenduan adierazteko erabiltzen dituen genero eta formei erreferentzia eginez*”. Hitzaldira sartzeko 5 euro ordaindu beharko da.

## OLGETAN EUSKARAZ

Urriaren 16an abiatuko da barriro ere Olgetan euskaraz programa Txomin Aresti ikastetxea. 2001 eta 2007 urteen artean jaiotako leioztarrentzat eta, urtero legez, jolasak eta tailerrak jorratuko dituzte umek, euskaraz. Orduetgia 17:30etik 19:00etara izango da astelehen eta eguaztenetan, edota martitzen eta eguaztenetan. Animatu eta emon izena!

 **naturlan**

**Lorezaintza**  
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243

  
**BIZKAIA**  
irrati

**BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan**

F.M. 102.6 Mhz

[www.bizkaiairrati.com](http://www.bizkaiairrati.com)



Aktualitatearen alde ezberdinak  
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**  
[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com) · 943 37 15 45

## [erandio]

**Julio Gonzalez** > Atxazpe Mendi Taldeko kidea

“Hitzaldiak, erakusketa eta argazki-lehiaketa egingo ditugu Atxazperen Aste Kulturalean, 15etik 19ra”

20 urtetik gora daroa mendia eta naturarekiko zaletasuna sustatzen Astrabuduko Atxazpe Mendi Taldeak. Hil honetarako enegarrenez antolatu dute Aste Kulturalean: hiru hitzaldi, erakusketa eta argazki-lehiaketa izango dira urriaren 15etik 19ra, Josu Murueta Kultur Etxean.

—Beste behin ere, Aste Kulturalea antolatu duzue urriaren 15etik 19ra?

—Bai. Aste Mikologiko bezala egiten hasi ginen duela 15 urte inguru, xixak eta ondoan biltzen genituen, ondoren erakusteko. Baina, gaur egun, jendea ez da animatzen biltzera joatera eta, beraz, bestelako ekintzak egiten ditugu.

—Hitzaldi batzuk izango dira?

—Hiru hitzaldi egingo ditugu astelehen, eguazten eta barikuan, 20:00etatik aurrera. Kanpoko jendea etortzen da mendian edota bizikletan bizitako abenturak kontatzera. Aurten etorriko dira Simon Elias, Juan Carlos Balbas, eta Mila eta Asier.

—Zertaz jardungo dute?

—Simon Eliasek ‘Iargiaren mendiak’ izango ditu hizpide: Afrikako mendiak dira. Juan Carlos Balbasek hitz egingo du Shiva-ren hiruhortzekoari buruz: India eta Nepal arteko mendiak dira; aspaldi egin zuen espedizio hura. Azkenik, bari-



Astrabuduko kultur etxean izango dira ekimen guztiak

kuan hitz egingo dute Milak eta Asierrek, Iranera egindako bidaiari buruz: urtero egiten dute bidaiaren bat eta tokiko bitartekoei egokitzen zaizkie; hitzaldiaren izenburua da: “Itxurei ihes egiten dien bidaiak” (*Un viaje que escapa de los tipos*). Esan bezala, 20:00etan hasiko dira hitzaldi guztiak.

—Gainera, erakusketa eta lehiaketa bat egingo dituzue?

—Urtero egiten ditugu argazki-lehiaketa eta erakusketa, eta gaia beti izaten da

‘Mendia eta natura’. Lau sari emongo ditugu: hiru onenei eta argazkirik originalenari; hauek dira erakutsiko ditugunak 15etik 19ra. Ehun argazki inguru jaso ohi ditugu, gehienak herriko argazkilarienak. Beste erakusketa bat ere egin ohi dugu: oraingoan, intsektuen bilduma erakutsiko dugu. Aste honetaz gain, bestelako ekintzak ere egiten ditugu auzoan mendiarekiko zaletasuna bultzatzeko: urteerak, arbola landaketa, ibilaldiak, e.a. Ia 200 bazkide gara. ○

**Kultura** barra-barra urrian  
Kantagunea, **organo kontzertua**, ibilaldia, goitibeherak, **ipuin kontalariak eta...**



Ibilaldia egingo dute Eramdiogoikora eta Martiartura hilaren 12an, Ondarearen Jardunaldiaren

**Agenda beteta** dago urri honetan Erandion; izan ere, kultur ekimenez gainera dator: kata, dantza, ibilaldia... Hona hemen horietako batzuk:

Hilaren 12an eta 13an ekimen bi izango dira: ibilaldia eta goitibehera lasterketa. Lehena Ondareari buruzko Jardunaldien barruko ekimena da: Erandio Ezagutuz III. Ibilaldia. Udaletxeko plazatik urtengo da martxa 09:00etan eta bisitatuko dira Erandio-goikoako eliza eta Martiartuko dorrea; izena emoteko deitu 94 489 01 40 zenbakira. Goitibehera lasterketak, barriz, barikuan eta zapatuan izango dira eta

Jaialdi Inertzia-Kiroleko elkarteak antolatu du. Altagako eskolan hasiko dira lasterketak, eta izango dira 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Hurrengo asteburuan ere egongo da zer ikusi: eguaztena 17an Kantagunea izango da 19:00etan Altagako azoka zaharrean; eguena 18an, barriz, ipuin kontalariak arituko dira Astrabuduko liburutegian, 18:00etan; eta hilaren 18tik 21era, Kintxopeko txapelketa egingo du Ortzi Herri Kirol Taldeak Erandio-goikoako probalekuan. Barikua 19an, gainera, Organo kontzertua izango da bertako Andra Mari elizan, 20:00etan. Besterik behar duzu? ○

### EXTREMADURAKO ETXEA: KULTUR ASTEA

Urriaren 12tik 21era egingo du Astrabuduko Extremadurako Etxeak Kultur Astea. Josu Murueta plazan eta Kultur Etxean izango dira ekimenak: erakusketa, hitzaldiak, umeentzako jokoak, ardo dastatzea, dantza ikuskizuna eta abar. Gainera, zapatua 20an artisauen azoka izango da: 12:30ean urdaiazpiko mozketak eta dastatzea egingo dute eta 18:30ean jaialdia. Domeka 21ean, barriz, Erandio eta Coria herrien arteko senidetze ekitaldia izango da: eguerdian txistulariek eta Udal Bandak joko dute, 13:00etan ekitaldia izango da, 19:00etan antzerkia eta 20:00etan, Etxemadurako gozokien dastatzea. On egin danori!

### ARGAZKILARITZARI BURUZKO EKIMENAK ASTRABUDUAN

Astrabuduko Fotoclub eta Takolos Radio Klubak ekitaldiak egingo dituzte hil honetan. Fotoclubek urteera antolatu du urriaren 21ean Urederra ibaira, Nafarroara; eta hilaren 9, 16, 23 eta 30ean doako eskolak eskainiko ditu auzoan, 19:30etik 21:00etara, besteren artean: edizioa Photoshopagaz, argazki-kritika edota Tanta-argazkigintza. Takolos Radio Klubek, barriz, hainbat gauza antolatu du: urriaren 11n argazkigintza-tailerra, 15etik 19ra ‘Erandio gauean’ erakusketa, 18an proiektzioa eta 28an urteera Igoroin ibaiaren haizpitarera.

Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net)

### TRABUDU DANTZARI TALDEAREN IKASTAROAK

Ikasturte barriari ekin dio ere Trabudu Dantzari Taldeak eta, horrenbestez, bere ikastaroetan izen-emotea abiatu du: euskal dantzak, alboka, txalaparta, panderoa, trikitixa eta txistu ikastaroak eskaintzen ditu Trabuduk, ume zein nagusientzat. Informazio gehiago eskatzeko: [trabududantzari@aldizkaria.com](mailto:trabududantzari@aldizkaria.com).



Luberr Basolanak, SL  
Axpe ibaiertza 28A  
beheko solairua B12 lokala  
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38  
Tf :94 467 17 13  
Faxa: 94 467 42 41  
[luberr@euskalnet.net](mailto:luberr@euskalnet.net)  
[www.luberr.biz](http://www.luberr.biz)

- Soropila ezartzea  
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea  
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak  
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inauszea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea



**adi lagun!**

Plaza atalean zure iritzia\* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

**[uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)**

\*(sinatuta eta gehienez 330 berba)

## BERBALAGUN TALDEAK OSATZEKO DEIALDIA

Euskara praktikatu gura duzu ederto pasatzen duzun bitartean? Bada, Sopelako berbalagun taldeetan horretarako aukera izango duzu. Urrian hasiko dira batzen berbalagun sopoloztarrak, adin eta ordutegi ezberdinetako taldeetan. Iaz, sei talde osatzea lortu zuten. Izena eman gura baduzu [euskera2@uribekosta.org](mailto:euskera2@uribekosta.org) helbidera idatzi!

## DANTZALDI IBILTARIAREN ESKOLAK, EGUAZTENETAN

Beste urte batez, Aiko taldeak Dantzaldi Ibiltaria ekarriko du Sopelara. Eguaztenetan jotak, porrusaldak, baltsak edo mazurkak irakatsiko dituzte Iberre Institutuan: 18:00etan hasibarrientzat eta 19:30ean gehiago sakondu gura dutenentzat. Prezioa 150 eurokoa izango da, urritik ekainera arte. Izena emateko: [www.aikotaldea.com](http://www.aikotaldea.com).

## ANATOLI AKERMAN-EN CLOWN IKUSKIZUNA

Urriaren 13an, zapatuan, nagusientzako clown ikuskizuna izango da Kurtzio Kultur Etxean, Anatoli Akerman eta Gerry Regitschnig 'Kuku'. Hitzordua 20:30ean izango da, hiru euroren truke. Bestalde, hilaren 20an Cecilia Paganiniren *90 semanas y media* bakarriketa eskainiko dute Kurtzion, 20:00etan, hiru euroren truke. Lan honek amatasunaren eta haurdunaldiaren inguruko hausnarketa bultzatzen du.

## MUNARRI TALDEAREN URTEERA PIRINIOETARA

Non gogoia, han zangoa! Hilero legez, Munarri Mendi Taldeak urteera prestatu du urrian ere, asteburu osokoa gainera. Hilaren 12tik 14ra Huescako Pirinioetara ibilaldia egingo dute, Collarada (2.886m), Vertice de Anayet (2.559m) eta Pico de los Moines (2.290m) mendiak igoz. Ondo pasa!

## Abian da Sopel&dub!

Sormena, euskara eta dantza uztartzen dituen lip dub lehiaketa antolatu du Udalak



Saria Sopelako dendetan gastatzeko 1.000 euroko bonoa izango da

**Ondarroan,** Lekeition, Durangon... Euskal Herriko herri askoan ikusi dugu lip dub bideo-fenomenoa zabaltzen. Bada, udazken honetan Sopelara ere helduko zaigu! Udalak eta Euskara Zerbitzuak 'Sopel&Dub' lehiaketa antolatu dute, eta honen bidez, sopoloztarrak euren sormena lantzeko aukera izango dute.

Herriko edozein taldek izango du aukera lehiaketan parte hartzeko: koardrilek, kultur eragileek, ikastetxeek e.a. Ezinbesteko baldintza bi egongo dira: bideoan entzuten den kantak euskaraz

izan behar du, eta grabaketa Sopelan egin. Eta noski, lip dub-a denez, irudiarren grabazioa plano bakarrean egin behar da (hasiera eta amaierako kredituak kenduta).

Lanak aurkezteko epea azaroaren 21etik 28ra arte izango da. Baina aurretik, lip dub bideoak grabatzen ez dakitenei tailerrak eskainiko zaizkie (ez da beharrezkoa bertara joatea lehiaketan parte-hartzeko). Tailerrak urriaren 22tik 28ra egingo dira, eta taldeek produkzio lanetan ere laguntza izango dute. ○

Info+: <http://www.sopelandub.com>

Haizea Lopez Martinez > idazlea

“Nire istorioetan zer gertatuko den jakiteko irrikan egoten naiz ni neu ere”



Info+: [haizealopez.blogspot.com.es](http://haizealopez.blogspot.com.es)

**Lehen nobela** argitaratu du Haizea Lopez Martinezek: *Prisionera de mi mente*. Sopoloztarrak 19 urte dauka eta Seleer argitaletxeagaz kaleratu du.

—Patuari buruzko nobela idatzi duzu.

—Guztiok pentsatu dugu noiz edo noiz patuan; nire burutazioak kontatu gura nituen. Lehen pertsona kontatu dut istorioa, lau ikuspuntutatik.

—Beste lan batzuk ere prest daukazu: ametsa egia bihurtzen ari da?

—Narrazio lehiaketa batean finalista izan eta animatu nintzen nobela bat idaztera. Orditik lotu barik nabil: beste hiru nobela daukat amaituta, horietako bi argitaratuko ditut eta bosgarren bat idazten ari naiz. Liburuko esaldi bat da: “*Idaztea erraza da; zaila dena ekitea da*”; eta nik hala sentitzen dut: idazteko erabakia hartuta, istorioan sartzen hasi eta harrapatzen zaitu. Gainera, nire kasuan, idazten hasi eta ez dakit nora eroango nauen istorioak, pertsonaia daukat eta istorioa sortuz doa bere

inguruan: zer gertatuko ete den jakiteko irrikan egoten naiz ni ere, emozionatu eta benetako mundutik aldentzen naiz.

—Curriculum luzea horren gazte izateko; adina traba izan da argitaratzeko?

—Kostatu zait argitaletxeek kasu egitea: esaten zidaten 23 urtetik beherako lanak ez zituztela hartzen. Beraz, azkenean ez nuen ipintzen adinik aurkezpenean, eta horrela lortu nuen nobela argitaratzea. Orain beste liburu bi kaleratzeko kontratua daukat beste argitaletxe bate-

**«Ez zidaten lana hartzen oso gaztea nintzelako, eta aurkezterakoan adinik ez ipintzea erabaki nuen»**

gaz. Azken finean, idazten egiten zara idazle eta aldea dago lehen idatzietatik azkenean. Gero hobetuko duzun gazteen lanei ez diete aukera handirik emoten. Baina orain, lehiaketa batean finalista izandakokan, nobela bat kalean eta beste bi bidean: kasu gehiago egiten hasi zaizkit. ○

## DIDAK hamilton IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
[info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email.: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

## OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
[oinutsik@euskaltel.net](mailto:oinutsik@euskaltel.net)



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

## saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

[www.saiazgetaria.com](http://www.saiazgetaria.com) / [info@saiazgetaria.com](mailto:info@saiazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143

**Javier Garcia** > Berangoko Txirrindulari taldearen arduraduna

“Euskadi mailan ume gehien dituen txirrindulari eskola gara, eta urtez urte hobetuz goaz”

**Bizikleta festa antolatu barri du Berangoko Txirrindulari Taldeak. Urtero legez, hamaika lagun batu zen txirrindulagaz egun ederra pasatzera. Javier Garcia izan zen antolatzaileetako bat.**

—Denboraldia amaitu barri duzue, zelan joan da?

—Gutziz arrakastatsua izan da! Kadeteetan garaipen asko lortu ditugu, eta gaztetxoetan ere emaitza nahiko onak lortu ditugu. Eskolen arteko txapelketan Euskadiko txapeldunordeak izan gara, ez dago batere txarto!

—Harrobia sortzen ari zarete herrian...

—Eskolan 45 ume ditugu; aurten ere marka guztiak hautsi ditugu, Euskadi mailan ume gehien ditugunak garelako. Urtez urte hobetzen goaz eta gero eta emaitza hobeak lortzen ditugu. Gazteek ondo pasatzen dute... baina gurasoek gehiago gozatzen dute!

—Horren talde handiagaz... gaitza izan-goa da dena kudeatzea!

—Giro oso ona dugu, eta zorte handia izaten ari gara lan egiteko orduan. Bai txirrindulariek bai euren gurasoek taldearekiko konpromisoa dute, *feeling* handia dugu. Eta hori oso garrantzitsua da taldearen funtzionamendurako. Adibidez, uz-



Garciak ia hamarkada bat daroa Txirrindulari Taldearen arduradun

taileko azken astean hiru eguneko jaialdia antolatu genuen kadeteentzat: Txumaren I. Nazioarteko Hiru Egunak. Bertan, Eskozia, Portugal, Ipar Euskal Herriko eta beste leku batzuetako selekzioak etorri ziren lehiatzera, eta 200 lagun izan genituen antolakuntzan. Nazioarte mailan dagoen bakarra izan da, arrakastatsua benetan. Bederatzi hilabete ibili gara prestatzen, baina arrakasta dela eta, errepikatze asmoa dugu, lan handia sor-

tzen digun arren.

—Orain Erandio eta Leioagaz batera egiten duzue lan, ezta?

—Bai, maila guztietan, hiru herrietako txirrindularitza taldeak elkartu eta ‘Elkar Kirolak’ izeneko taldea sortu dugu.

—Eta aurtengo erronka zein izango da?

—Aurtengo erronka martxan dago jada: zaletu mailako taldea sortzea, *amateur*-ak dira, 23 urte baino gutxiagokoak. ○

Info+: <http://www.elkarkiroalak.com>

**Landare inbaditzaileetan adituak** > Ekogune

“Landare inbaditzaileek bertoko biodibertsitatea suntsitzen dute”



Gayak, Elortegik eta Sotok Uribe Kostan landare inbaditzaileen eragina ezagutzen dute

**Joan den** hil akabuan Uribe Kostan auzokide dugun Panpa Lezka landare inbaditzailearen inguruko hitzaldia eskaini zuen Uribe Kosta Mankomunitateko Ekogunek; horrela, guk gehiago jakitearren Naiara Gaya, Izarra Elortegi eta Oihane Soto hitzaldiaren antolatzaileak berba egin dugu, Panpa Lezkaren jatorri eta ondorioak azaltzeko.

—Zeintzuk dira landare inbaditzaile garrantzitsuenak?

—Panpa Lezka, Buddleia eta bambua dira inbaditzaile garrantzitsuenak; izan ere, inguruan horietako asko ditugu.

—Zein arrisku dakarte?

—Panpa Lezka da horien artean arrisku handienak ekartzen dituen. Panpa, hain zuzen ere, erraztasun handigaz heldzen da edozein lekutara, eta bertako landare espeziakaz lehiari hasi ondoren, bertakoak mugitzea lortzen du; flora tokiz aldatzen du; horrela, apurka-apur-

ka hemengo biodibertsitatea galtzen doa, eta hori oso kaltegarria izan daiteke ingururako.

—Zelan heldu dira hona?

—Panpa Lezka Argentinatik heldu zen, eta hasiera batean, apaintzeko helburua-

**«Panpa Lezka, Buddleia, eta Bambua dira gurean inbaditzaile nagusiak»**

gaz ekarri zuten. Horrela, lorategi publiko eta pribatuetan landatu izan dute polita geratzen delako.

—Kontrolik badago?

—Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak liburuxkak atera ditu, esanez, nola kontrolatu ahal diren espezie horiek; ezabatzea ez, oso zaila delako horiek ezabatzea. Aipatzen diren kontrol nagusiak; alde batetik, ez landatzea; beste aldetik, tainaren arabera, kimikoak erabiltzea, horiek deuseztatzeko. ○



## AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / TF. 94 491 17 86

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96



**COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.**

**Harritzeko moduko kalitatea!**

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogaria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: [bilbao@limpiezasvillar.com](mailto:bilbao@limpiezasvillar.com)

**Garaizar**  
*barrikuntzak*

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
Ileeta Kalea 1 • ALGORTA

**zaindu**  
Esku Terapia Zentrua  
Osteopatia · fisioterapia

**Ane Nafarrate Martin**  
Doctor landa 4, Sopela  
Telf.: 946026779



## URDULIZEN IKASTETXEA HANDITUKO DUTE

Urdulizko Elortza Herri Ikastetxea handitu beharrean daude; aurtengo matrikulazio-okupazioa %100ekoa izan da, eta antza denez, epe labur eta ertainerako aurreikuspenak dio Urdulizek goranzko joera biziko duela. Udan obrei ekin zieten, eta lehenengo pabiloia bota zuten partzela libre uzteko asmoz, horrela, Hezkuntza Sailak ahalik eta arinen ekin ziezaion ikastetxea handitzeari. Hortaz, ikastetxea handitzeko premia handia dago, eta Urdulizko Udalak beharizan horri erantzun ahal izateko, ahal den heinean epeak eta tramiteak laburtuko ditu, higiezin berria eraikitzeko lanak ahalik eta arinen has daitezten.

## SUKALDARITZA BEGETARIANOAK IKASTEKO AUKERA PLENTZIAN

Urriaren 11ra arte Goñi Portalean izena emoteko aukera izango duzu Plentziako Udalak antolatutako sukaldaritza ikastaroan. Animatzen zaretenok hiru hilebetz plater begetarianoek gozatzeko aukera izango duzue modu didaktiko eta praktikoa. Bertan, oinarritzko sukaldaritza begetarianoa ikasteko aukeraz gainera, zenbait plater berezi ere ikasteko aukera izango duzue. Tailerra larunbatetan eskainiko da, azaro, abendu eta urtarrilean zehar. Plentzia edo gorlizkoa izanez gero 110 euro ordaindu beharko duzu, gainontzekoek 120. Animatu, eta mundu begetarianoan murgil zaitez!

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

## Mankomunitatea

## Agenda 21en ekintza-plana berrikustea herriz herri



Sei urtean Agenda 21ek jarduera ugari ipini ditu martxan

**Sei urte** igaro dira mankomunitateko hainbat udalerritan Tokiko Ekintza Plana onartu zutenetik. Plan horrek udalek garatu beharreko jarduerak jasotzen zituen; alde batetik, gizarte eta ekonomia aldetik; beste aldetik, biztanleen bizi-kalitate aldetik ere hobetzeko. Ekintza-plan horiek Tokiko Agenda 21ek ezartzen dituen ilo nagusiakaz bat eginez soru ziren. Horrenbestez, planaren xede nagusiak tokiko iraunkortasuna lortzea izan behar zuen; era berean, udal-eragile politiko, ekonomiko, sozial guztien zein hiritar ororen partaidetzari bidea zabaldu gura zioten.

Daborduko, esan bezala, sei urte igaro dira Lehen Tokiko Ekintza Planaren indarraldia abian jarri zenetik, horregatik, Lemoiz, Barrika, Berango, Urduliz eta Sopolako udalek Berrikuspen prozesuari ekin diote. Berrikuspena, egoeraren diagnostikoaren lanketaz hasiko da eta behin hori eginda, Tokiko

Agenda 21en II. Ekintza Plana diseinatu dute. Oraingoan, diagnostikoa osatzeari ekingo diote, eta horregaz jarraituko dute datozen hiru hilabeteetan. Diagnostikoa osatze bidean herritarrek euren iritzia emateko aukera izango dute hainbat modutan; web-gunea,

**«Lemoiz, Barrika, Berango, Urduliz eta Sopolako udalek Berrikuspenari ekingo diote»**

parte-hartze foroa, elkarrizketak, besteak beste, parte hartu ahal izango dute. Behin diagnostikoa eginda plan estrategiko berriaren sorkuntzagaz jarraituko dute; egin dituzten aurreikuspenen arabera datorren urteko martxorako plana burututa egongo da. Tokiko Agenda 21en ekintza Planaren berrikuspena egiteko Mankomunitateak enpresa espezializatu baten laguntza teknikoa izango du.○

UK-ko  
hainbat langilek  
bat egin genuen  
grebagaz

[albuma]



# Aldarria zabalduz

Joan den hilaren 26an hainbatek Uribe Kostako kaleak bete zituzten; hala, herritar ugarik sindikatuek eta eragile ugarik egindako deialdiari erantzun zioten. Bizikleta-martxa, kazeroladadak, piketeak, manifestazioak... Jendeak hamaika bide topatu zuen murrizketa, erreforma eta egungo eredu ekonomikoaren aurka matxinatzeko. Hemen ikus ditzakezunak orduko aldarri-irudiak baino ez dira, oroimenean gal ez daitezten.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





## Ereaga, 1915

bainujantzian

XX. mende hasierako bainujantzien moda ikus daiteke argazki eder honetan. Esan behar da lehenago bainujantziak Antzinako Erromako terma publikoetan erabili zituztela, baina Erdi Aroan ur termalak hartzeko ohitura galdu eta desagertu ei ziren. XVIII. mendean berragertu zirenean alkandora bat besterik ez zuten erabiltzen urak hartzeko eta, gaur egun, tela gitxiko bikiniak eta bainujantziak erabiltzen dira, modako arropa piezak bihurtuta. Halere, kontuz! Barriki esan dutenez datorren udan ez dira eroango mini-bikini txiki-txiki horietakoak; aldiz, kulot itxurako galtzak egingo ei dituzte... Ez ete gara itzuliko hainbeste oihal zeukaten orain ehun urteko bainujantzietara?

[berbetan]

Irailaren 26ko greba orokorraren biharamunean Deiane Arrieta (Aretxabaleta, Gipuzkoa; 1983) ELAko Eskumaldea (Uribe Kosta, Txorierra eta Mungialdea) guneko arduradunagaz batu ginen egoeraz eta grebaz bere hausnarketa jasotzeko asmoz. Algorta du bizileku orain dela 3 urtetik hona aretxabaletarrak, eta Kazetaritzan lizentziaduna da. Uribe Kostako egoeraz ere jardun du, krisiaren eragin eta ondorioez.

# Deiane Arrieta

## Mobilizatzen jarraitzeko asmoz

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Greba osteko eguna. Bosgarren greba azkeneko 3 urteotan; bigarrena aurtan. —Atzokoa (irailak 26) termometroa izan zen, jendea benetan egoerarekin oso haserre dagoela ikusteko, ez datorrela bat gobernuen politikekin eta patronalak, meneginez, aurrera eroaten dituenekin. Gainera, erakusten du jendeak beste aukera batzuetan sinesten duela, hori eskatzen eta aldarrikatzen dutela. Alde horretatik, uste dugu, mobilizazio oso inportantea izan zela, jende askok parte hartu duela; eta pozik zentzu horretan, ikusten dugulako egoera honen aurrean, halere, jendeak alternatibak badaudela sinesten duelako. Bosgarren greba, bai, baina beste ekintza askoren artean bat gehiago, jarraipena, bost greba orokor baino gauza gehiago egin ditugu: manifestazioak, kazeroladak e.a. Grebaren helburua hau zen: jendearen haserre hori era kolektiboan adieraztea, eta era kolektiboan ere alternatibak exijitzea, gobernuetan daudenei baita gero egongo direnei ere. —Alternatibak, zer proposatzen duzue? —Eguno sistemak, argi dago, ikuspegi

sozialetik porrot egin duela; miseriara garamatza. Hortik abiatuta, alternatiba da herritarren beharrezan ardatz dituen sistema sortzea. Ez da egun batetik bestera gauzatuko, baina alternatiba hori hori dago; zelan gauzatzen da? Neurri politikoak garatuz, esaterako, fiskalitatean. Uste dut, fiskalitatea gako delako; batu, gero banatzeko garrantzitsua delako. Erabaki horiek gobernuetan hartzen dira, eta hori eragin beharko... Helburua: gizartearen beharrezan ardatz hartzen dituzten politikak gauzatzen dituen sistema.

**“Mobilizazioa gako da, eta greba orokorra horien artean bat. (...) mobilizazioetan jarraituko dugu...”**

—Aurrekoan ez legez, sindikatu pisutsu bik ez dute grebagaz bat egin...

—Grebara batu ez direnei galdetu behar litzateke zergatik eurek ez duten uste arrazoi nahikorik ez dagoela grebara joateko; eurek azaldu beharko dute. Guk uste dugu greba-deialdi honetan asko baliotsi behar dena dela zein izaeratako sin-

dikatuak eta eragileak batu garen; ez bakarrik sindikatu abertzaleak, batzuek esan bezala, sindikatu abertzaleak bai, baina sindikatuak ere, eta hainbat gizartemugimendu izaera oso ezberdinetakoak. Batzuk ez dira batu? Eurek azal dezatela zergatik. Ziurrenik, hori oinarrian dagoena zera da: egoera honen aurrean egiten den irakurketa. Guk uste, momentu honetan, ez dela murrizketak negoziatzeko ordua, horretarako dekretu bidez egiten dituzte... Agian, batzuek ez dute hori partekatuko...

—Betiko sentsazioa, grebara urten, eta orain zer? Bestelako neurriak, ekintzak?

—Grebak beti dira baliogarri, hori lehenengo eta behin; bestela entzuterik baino ez dago orain dela egun batzuk Lujua, Confebaskako presidentek esandakoa: *“langileak, zergatik egiten duzue greba?!”* Zergatik ez zarete mobilizatzen jai-egun





*batean?* Beraz, grebak min egiten du, hori azpimarratzekoa da. Greba orokorra da hainbat mobilizazio motaren artean bat, eta ez ditugu greba orokorrak bakarrik egiten, ekintza gehiago egiten ditugu. Gizartearen noranzkoa aldatzeko mobilizazioa gako da, gizartearen mobilizazio barik ez da ezer aldatuko, gobernuek ez dituzte euren politikak aldatuko guk horretara behartzen ez baditugu. Hori hala izan da hemen eta mundu mailako beste eratako iraultzetan; Portugalgo adibidea: Gobernuak erabaki edo jakinarazi zuen %7 soldata-jaitsiera gauzatu zuela, eta enpresariei kotizazioetan beherapena, eta jendea mobilizatu zenez erabaki du, oraingoz behintzat, bertan behera uztea. Mobilizazio gako da, eta greba orokorra horien artean bat. Guk mobilizazioetan jarraituko dugu. Sortu dugun plataforma honetan sinesten dugu, sindikatuen eta izaera sozialeko mugimenduen plataforma honetan; elkar asko aberasten gaitu, gainera gizartean izaera kritikoa sortzen duela uste dugu. Beraz, batasuna badago. Zertan oinarritzen da? Egoeraren irakurketan eta helburuak finkatzeko orduan. Ziurrenik bestelako mobilizazioetan zelan egin-eta ere alternatibak bilatzen saiatu beharko dugu. Baina, mobilizazio barik, aldaketarik ez! Nik uste dut hemen demokrazia falta garbi baten aurrean gaudela; demokrazia falta gauzak adierazteko orduan, erabakiak hartzeko orduan, politika batzuk egingo dituzula esan eta betetzen ez diren kasuan e.a. Demokrazia falta horri aurre egiten zaio mobilizazioekin; momentu honetan, mobilizazioa delikuentziarekin lotzen da... Eta greba eskubidea eraldatzeko kontu hori behin eta berriz entzun dugu...

—Kontrargudio legez, lan-eskubideaz jardun dute batzuek, lanera joateko eskubidea errespetatzeko...

—Lanerako eskubidea Estatuan uste dut bost milioi lagunek eskatzen dutela egunero, eta ukatu egiten zaie. Zergatik? Lanmerkatuko arauak deserregulatu dituztela-

ko guztiz. Gainera, alde batetik, lan-orduak luzatzea eskatzen dute, orduan hor lanaren banaketa ea zelan egiten duten, eta ea zelako lan-baldintzekin... Prekarietatea, flexibilitatea, segurtasun eza... Orduan, lan-eskubidea bai, baina lan gabe daudenek eskatzen dute, eta dagoeneko pobrezia heltzen dabilzanek ere bai, eta etxebizitza eskubidea eskatzen dugu...

## “Alternatiba, gizartearen beharrianak ardatz dituen politikak gauzatzeko dituen sistema da”

Greba eskubidea oinarritzeko eskubidea da, aldarrikapen eskubidea; horren kontra joatea jendea isilaraztea eta euren iritzia kontuan ez hartzea da. Hedabideen bidez isilarazten gaituzten bezala, kalera atera eta protesta egiteko erak ere kriminalizatu dituzte. Nik uste, hemen, horri aurre egiteko ere lan handia dugula. Sindikatu edo gizarte eragileon egitekoa guztiz barregarri utzi gura izaten dute; eta ez dira konturatzeko jendeak sortutako erakundeak gaituzte.

—Batasuna beti onerako ei; baina, gaitza —Bai. Greba honetako deitzaileok funtzionamendu eta hainbat izaeratako taldeak gara; sindikatu danak ez gara bordin antolatzen, ez daukagu helburu berdinarik, gauzak ikusteko prespektiba berdinarik, hori zailtasuna da. Gero, alkatere sozialen

## “Izaera ezberdinetakoak, baina bat gatoz krisi honen erantzule ez garela gu; ez ordainarazi euren zorrak guri”

arte beste horrenbeste; ez gara egitura berdineko organizazioak, helburu berdinekin sortutakoak. Zaila da, baina batasunik ez dagoela dioenak... Batasuna egon badago, eta greba da adibide bat, oso izaera ezberdinetako jendea gara, baina bat gatoz irakurketa batekin: krisi honen erantzule ez gara gu, beste batzuk dira, ez or-

dainarazi euren zorrak guri; alternatibak exijitzean ere bat gatoz. Egoera honek halako batasuna eskatzen du; ezberdintasunen gaintetik, minimo batzuetara heldu behar dugu, gizarteak hori eskatzen du.

—EAEko hauteskundeak aurrez aurre. Greba eguneko mitinetan kontuan hartu ziren; politikariei kritikak...

—Ez da abisua izan. Beti egongo gara ka-

lean langileen, gizartearen parte handi baten interesak ez badituzte kontuan hartzen. Zer eskatzen diegu alderdi politiko-ek? Aipatutako aldaketa emotea. Orain arte behintzat, gobernuek hartu dituzten neurri danak noranzko berean joan dira: kapitalaren mesedetan politikak garatzea, izan fiskalitatean, izan lan-erreformen bidez, izan gastu sozialaren banaketan... Eskatzen dieguna da gure beharrianak ardatz izatea, hau da, guztiarekin apurtzea... Neurriak leku desberdinetatik etorri dira, Madrilgo Gobernutik, Europatik... Defizita murriztu aldera hartutako neurriak noranzko bera izan dute. Lan-erreformek, kaleratzeak merketu dituzte, kalte-ordainketa izugarri jaitsi da eta horrek ahalbidetu du kaleratzeak era masiborik gauzatea, gero kontratazioa baldintza

gi utzi gura dugu krisi honen erantzule ez direla soldatak, badirudi soldata jaitsierarekin krisitik urtengo garela; inondik inora! Krisia areagotuko da! Gero, negoziazio kolektiboa Madril zentralizatu dute, hau da hemengo langileek euren eskubideak defendatzeko askoz urrutiago dute erabakitze gaitasuna, eta hitzarmenak iraungi eta urtebetera ez baduzu barri-

## “Egongo zaretanak egoten zaretela, herritarren beharrak kontuan hartzen ez badituzue, gu hemen egongo gara”

rik adosten estuto *“puroyduro”*; babesik gabe uzten zaitu! Uztaila daukagu buruan, orduan joan daitezkelako pikutara hamai-ka hitzarmen! Hitzarmenak bizkarrezurra dira lan-baldintzak zehazten dituztelako.

Erreformaren bidez, beraz, desegituratu egin dute, lan-baldintzak merketzeko eta negoziaketa langilearengandik ahalik eta urrunen egoteko. Hala, atzo (irailak 26) mezu hau bota zen: egongo zaretanak egoten zaretela, herritarren beharrak kontuan hartzen ez dituen politika egiten baduzue, gu hemen egongo gara. Bada ordua arlo soziala izateko euren propagandaren eta

gero eguneroko eginkizunaren ardatza, orain arte izan ez dena. Orain arteko politika danak joan dira noranzko batean, kapitalaren eta merkatuaren mesedetan. Eskatzen duguna da horrekin apurtzea,

desobedientzia da bidea bai ala bai; Madriletik datozen neurri asko hemen ontzat hartu dituztelako batzuek, eta beste batzuek. Bestela, soberania zertarako, ezta? Zuk zertarako gobernatzen duzu, ezin baduzu zure herritarren nahia kontuan hartu? Apurtu horrekin. Alternatiba: desobedientzia egin behar duzue. Sindikatu bezala, saiatuko gara euren politika horietan eragiten. Politikan hartzen dituzten neurri horiek baldintzatzen dutelako gure egunerokoa. Mezu zuzena izan zen atzokoa, egoten direnak egoten direla, ez dago aitakiarik, ez du balio esateak “Madriletik hau esan digute...”, “murrizketak egin behar ditugu defizitaren maila errespetatu behar dugulako...” Ez, ez! Zu hemen zaudete herritarren beharrak asetzeko, bada izan zaitez ausarta eta adostuko ditugu, gaitasuna egon badago! ○

## Urbe Kostan, krisiaren ondorioak

—Zein da egoera?!

—Estatutik finkatu eta hemengo gobernuetatik ontzat emondako defizita murrizteko neurriek eragina izan dute. Zertan? Zerbitzu publikoen kalitatea izugarri jaitsi da, adib.: etxez etxeko laguntzan, Getxoko kasuan 2008-2011 12.352 ordu gitxiago eskaini ditu Udalak; jende gitxiago dagoelako behar hori duena? Ez! Aurrekontuetan murrizketa egon da, eta 2011-2012 ere bai. Arreta askoz okerragoa, familiarentzako karga handiagoa eta langile batzuk kaleratzea dakar. Bestalde, haurreskolen egoera; eskualdean publikoetan 513 leku bakarrik dago, argi dago ez diola erantzuten eskaera errealarri, eta pribatuen bidez negoziatzea egiteko aukera handia da... Agian, norbaitek pentsatu beharko du seme-alaba haurreskola pribatura eroan ala bera etxean lotzea umea zaintzeko! Nagusien Egoitzen kasua, adib. Erandioneko Loramendin orain dela 3 urte 145 lekuak ia %90 beteta zeuden, egun ia 40 leku hutsik, Diputazioak ez duelako bertara pertsonarik bideratzen. Horrek leku batzuk pribatu bihurtzeko zentroak dau-

kan eskumena indarrean jartzea ahalbidetzen du. Klinika pribatuen kasua ere hor dugu, eskualdean dexente daude; ambulategiak asteburuetan ixten dira, hori guztia aurrekontuetan murrizketak egon direlako... Dirua dutenek osasuna zainduko dute, baina ez daukanak zer?! Zerbitzu publikoa deusezteko neurri paregabea da defizitaren izenean murrizketak aplikatzea; beharra duten herritarrek babes barik uzten ditu. Edo uztailean dekretu bidez Rajoyk basikotzat ezarritako 37½ orduko lan-jarduna (orain 35 h) onartzeak udal bakoitzaren lanpostuen %10 galtzea dakar, adib.: Getxon 50 lanpostu soberan leudeke, Erandion 15. Bestalde, Sektore pribatuan, adibide argia dago Urdulizko RMIG-n, lehengo Permesa: orain urte batzuk multinazional dani-markar batek erosi zuen, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin! 20 urtetan irabaziak izatetik, erabaki enpresarial baten bidez, egungo araudiak ahalbidetuta, 54 lagun lan barik lotuko dira, itxi dute inolako kostu barik! Azken bereziki 4 urteotan, egindako lan-erreformek ahalbidetutakoaren ondorio da. Kalera-

tzeak merketu, enpresak ixteko tresnak enpresariaren aldeko bihurtu. Eskualdean langabetu kopurua piloa hazi da. Gurpil zoroa da: administrazioek murrizten dute, eta horrek pribatuan ere eragina du, lan-merkatua desahazten bada. Bestalde, badirudi industria dela ekonomia mugitzen duen sektore bakarra! 90. hamarkadan sare industrialak, Erandion eta Leioan batez ere, asko apurtu zela, azken urteotan ere enpresa asko itxi dira, txikiak gehienbat... Baina, berton Zerbitzuetan dugun indarra gero eta handiagoa da, horko langileak kontuan hartzeko da, Sektore horretako kontratazio eta baldintza ere bai! Kulturalki edo sindikaldi nahiko barriak diren sektoreak dira, oraindik langile kontzientzia barneratu barik dutenak. Lan handia dugu! Beti kontatzen dut, unibertsitatean joan nintzenean, halako guzur handi bat sartu zidatela: “zuk ikasi eta zure gurasoek baino lan-baldintza hobekien edukiko dituzu”, bai zera! Lan-baldintza eta bizi-baldintza hobekien edukiko dituz borrokatzen duenak; titulu batek ez dizu halakorik emongo!



## Begiradak

Hainbat begi pare, horrenbeste begirada: denak desberdinak. Mikel Martin Villakorta sopeloztarraren *Begiradak* bildumako irudiak dituzu honako hauek; lagin txikia besterik ez dira, bilduma askoz zabalagoa da-eta. *Ikusargi* Bilboko argazkigintza-tailerrean hasi zen Martin irudigintzan, 1988an. Ordutik ez da lotu eta hamaika sari jaso du, horietako gehienak Bizkaian. Bildumako gainontzeko argazkiak eta beste batzuk ere ikus ditzakezu interneten, [mikel-martin.com](http://mikel-martin.com) gunean.

Argazkiak: **Mikel Martin Villakorta**







Daborduko, gehienak urriaren 21ean Euskal Autonomia Erkidegoan izango diren hauteskunderi begira dira; ekitaldiak, mitinak, eztabaidak, agintzariak, kexak... hasi baino ez dira egin. Gurean ere, horrelakoak egin, egingo dira, eta horien protagonistak, agian, honako hauek izango dira: Uribe Kostako hautagaiak.

# Uribe Kostak, politikarien faktoria

Lehendakarigaiek, sailburuek, eskarmentu handikoek zein gazteek osatzen dute Uribe Kostako panorama politikoa; oraingoan, kolore zein iritzi guztikoak batu ditugu orrialdeotan **hurretik ezagut ditzagun**



**JON AIARZA**  
Sopela, 1964  
**EAJ**

Jon Aiarza sopoloztarra EAJ Bizkaiko zerrendetan 16. lekuan doa. Zuzenbidean lizentziaduna da, eta lanbidez abokatu; halere, urteetan Sopolako EAJko zinegotzia ere izan da.



**J.A. ARIETA-ARAUNABEÑA**  
Getxo, 1955  
**EAJ**

Zuzenbidean lizentziaduna den arren, udaleko kontu-hartzailea izan da, nahiz eta orain eszedentzian egon. Horrez gainera, 2001etik Eusko Alderdi Jeltzaleko parlamentaria da.



**MARISA ARRUE**  
Getxo, 1949  
**PP**

Enpresa idazkaritza ikasi zuen, baina 1991tik Getxoko Udaleko zinegotzia da, eta 95ean talde bozeramaile izendatu zuten. Bizkaitik diputatu nazionala izan zen VII eta VIII legegaldietan.



**NAHIKARI AYO**  
Getxo, 1982  
**EH BILDU**

Euskal Filologoa da getxoztarra. Aurreko udal-hauteskundeetan Getxon Aralarreko zerrendaburu izan zen. Horrez gainera, Ayok ibilbide politikoa Iratzarri Aralarreko gazte-entzian taldean hasi zuen.



**ANDER BILBAO**  
Berango, 1986  
**EH BILDU**

Zuzenbide ekonomikoan lizentziaduna da, eta Zigor Zuzenbide masterra egin zuen. 2001etik EA eta GAKo kide da. 2007ko udal-hauteskundeetan EAKo hautagaia izan zen Getxon.



**SUSANA GONZALEZ**  
Leioa, 1972  
**PSOE**

Zientzia Politiko eta Soziologian lizentziaduna, politika sozialetan masterra dauka. Gaur egun, Leioako talde sozialistaren bozeramaile da Udalean. Amnistia Internazionaloko kide ere bada.



**BEGOÑA JUARISTI**  
Leioa, 1954  
**EB**

Begoña Juaristi Geografia eta Historian lizentziaduna da. Une honetan, Euskal Herriko Unibertsitatean funtzionario lanetan dihardu. Ez da lehen aldiz Ezker Batuko zerrendetan doala.



**AITANA LOPEZ**  
Astrabudua, 1993  
**PSOE**

Uribe Kostako hautagaririk eta gazteena da Astrabuduko Aitana. Egun Zuzenbide ikaslea da; halere, gaztelania irakasle ere aritu da *Crea Africa* Gobernu Kanpoko Erakundean.



**LAURA MINTEGI**  
Getxo, 1955  
**EH BILDU**

Historian lizentziaduna eta Psikologian dokortua da EHBilduko lehendakarigaia. 1981etik EHUko irakasle da. Euskal PEN klubaren presidente, eta Euskaltzaindiko kide da.



**XABIER OLABARRIETA**  
Leioa, 1967  
**PP**

Olabarrietak Soziologia ikasi zuen Deustun. Horrez gainera, 1999tik zinegotzi da Leioako Udalean, eta 2003tik aurrera bozeramaile lanak egiten ditu Leioako talde popularrean.



**ISABEL CELAA**  
Getxo, 1949  
**PSOE**

Ingeles hizkuntza eta literaturan katedratikoa, baita Filosofia eta Zuzenbidean lizentziaduna ere. Gaur egun, Hezkuntza sailburua da Lakuan, eta PSEko Batzorde exekutiboko kide ere bada.



**CARMEN DIAZ**  
Erandio, 1977  
**PSOE**

Zientzia kimikoetan, Goi-teknikaria lan-arriskuen prebentzioan eta Berdintasun aukeran lizentziaduna. Gaur egun, Erandioko zinegotzia da, eta prebentzio formakuntzan aholkulari.



**IÑAKI GAMERO**  
Getxo, 1967  
**PP**

Informazio Zientzietan eta Zuzenbidean lizentziaduna da. Gasteizen parlamentaria izandakoa; 12 urtez Leioako zinegotzia; gaur egun, ostera, Getxoko taldean da zinegotzi.



**CARLOS GARCIA**  
Getxo, 1978  
**PSOE**

Carlos Garcia Bizkaiko zerrendetan 21. lekuan doa. Ingeniaritza informatikoan lizentziaduna da, eta gaur egun, web-aplikazioak garatzen dihardu, eta teknologia berrien irakasle ere bada.



**RAQUEL GONZALEZ**  
Getxo, 1976  
**PP**

Getxon bizi da 2001etik. Zuzendaritzako idazkaritzan diplomatu zen. 2005etik Getxoko Udalean zinegotzi da, oposizioan, udal-erresidentziaren ardura dauka.



**AITZIBER OLIBAN**  
Erandio, 1981  
**EAJ**

Zientzia Politikoetan, baita ikerketa eta merkatu teknikan ere lizentziaduna da, gainera, demokrazia parte-hartzaile postgradua egin zuen. Erandioko Udalean zinegotzia izan da 2003tik 2011ra.



**ELENA PEREZ**  
Erandio, 1968  
**PSOE**

Zuzenbide eta Zientzia ekonomikoetan lizentziaduna da. Horrez gain, genero eta berdintasun politikan masterra dauka. Eusko Jaurlaritzako Administrazio Publikoko sailburordea izan da.



**LEIRE PINEDO**  
Sopela, 1976  
**EH BILDU**

Ekonomian lizentziaduna da Pinedo. Finantza sektorean garatu du ibilbide profesionala kudeatzaile eta aholkulari. Sopolako EAKo erakundeko kide, eta Sopolako zinegotzi 2007tik.



**JAVIER RUIZ**  
Erandio, 1970  
**PP**

Zientzia Politiko eta Soziologian lizentziaduna da. 1999an hasi zen Erandioko alderdi popularraren bozeramaile; halere, iaz Erandioko lana utzi zuen Getxoko udalzerrendetan joateko.



**JUAN SANCHEZ**  
Sopela, 1974  
**EH BILDU**

Juan Sanchez sopoloztarra 21. lekuan doa EH Bilduko Bizkaiko zerrendetan. Bera erizaina da lanbidez Bilboko Udaleko anbulantzietan, hain zuzen ere. Politikan ibilbidea Alternatiban egin du.



**BETIKO**  
IKASTOLA

**Kalitatezko irakaskuntza euskalduna**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GAVRKO**




GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

## Ekoizpenak gurean

Aurrerantzean **zineetan dago aukera**, lan batzuk aipatzearen...



Atxagari buruzko **Leku hutsak Hitz beteak** izan da euskara hutsezko estreinaldi bakarra

**Donostiako Zinemaldiak**, onerako zein txarrerako, ostea uzten du urtero. Ez da termometro txarra Euskal Herrian egindako lanen eta euskarazkoen barri izateko. Aurten, argizatutakoek besteko oihartzuna izan dute Zinemaldiaren izpirik izan ez dutenek... Zinemira Euskal Herrian ekoiztutako zinemari eskainitako atala da, oro har euskal lan gehienak sail horretan eskaintzen dira; Zabaltegin ere emon dituzte batzuk. Euskal zerrenda horretan daude, "film osoa edo zatiren bat euskaraz duten" apurrak: *Leku Hutsak Hitz Beteak* (J. A. Arbelaitz), *Baztan* (Iñaki Elizalde), *Bypass* (Patxo Telleria / Aitor Mazo), *Deus Et Machina*

(Koldo Almandoz; Kimuak), *Ikuska 20* (Antxon Ezeiza; bere omenez eskainia), *Mariposas En El Hierro* (Bertha Gaztelumendi), *Emak Bakia Baita* (Oskar Alegria), *Mur-Mur* (J. M. Gutierrez), *Zuloak* (Fermin Muguruza). Euskaraz bikoiztutako umeentzako *Freddy Zapu Aurpegi* eta *Aita Zonbia Naiz* ere emon zituzten. Bestalde, 'euskal' horri hizkuntza ezau-

### «Zerrendatxoan euskarazko lanak zein bertoko ekoizpenak daude»

garria kenduz gero, bertan ekoiztutako artean hauek emon dituzte: *En Un Paisaje Imaginado*, *Pura Vida*, *To Say Goodbye*, *Gernika Bajo Las Bombas* (*Gernika Bonben Pean*), *30 Años De Oscuridad*, *Kitchen Dreams*, *Siete dias en La Habana* e.a. Gainera, Kimuak programako film laburrak ere ikusi ahal izan dira. Azkenik, azpituak euskaraz ere dituzten 24 pelikula egon dira ikusgai.

Ostera, egon ez diren eta benetan interesgarriak direnak ere estreinatu dituzte egunotan, Zinemalditik kanpo, adib.: *Gazta zati bat* (Jon Maia), *Barrura begiratzeko leihoak* (Josu Martinez, Eneko Olasagasti, Mireia Gabilondo, Enara Goikoetxea eta Txaber Larreategi), *Al otro lado del espejo* (Angel Amigo), *Dragoi ehiztaria* (Patxi Barko). ○

## Taupaka elkarteak

Euskal **sorkuntzaren** sustapenerako ekimena MusikHerriak-en hutsunea **betetzeko**



Info+: [www.taupaka.com](http://www.taupaka.com)

**MusikHerria** herri diskoetxea desegin ostean, Taupakako sustatzaileek adierazi legez, "bertako zenbait kidek gure lanak argitaratzeko elkarte baten beharra ikusi genuen. Musikara mugatzen urrun, sormen diziplina artistiko orotara zabaltzea erabaki dugu, diziplinen arteko elkarlanak eta loturak elkarte bera sendotuko dutelakoan". Momentuz, musikariak baino ez daude, baina laster bestelako sortzaileak ere batzea espero dute. Diotenez, "kulturraren pribatizazioak desdemokratizazioa kulturala dakar, edonork eduki kultural-tara sarbiderik ez izatea; eta eduki kultural

alternatibo eta kritikoei atek ixten zaizkio, kultur neutralak eta aseptikoak bultzatuz". Hala, Taupakaren izaerari hau izango da: "Euskal Herriko proiektua; euskal kultura eta sorkuntza bultzatuko du; emakumeen papera sorkuntza munduan bultzatuko du; copleft-aren aldeko apustua egiten du; autogestionatutako proiektua eta autogestioaren aldekoa; ez da enpresa bat, kultur elkarte bat baino; sorkuntzaren munduko beste eragileekin erlazio zuzena edukiko du".

Kideen artean daude 121 Krew, Feos pero majos, Hutsa, Norte Apache, Siroka, Solte eta Zein da zein? taldeak. ○

## bira > Fito&Fitipaldis

Urte bi oholzetatik urrun ibili ostean, antzokietako birari ekin dio Fito&Fitipaldis taldeak. Fito Cabrales buru Carlos Raya, Javier Alzola, Joserra Senperena, Alejandro "Boli" Climent eta Daniel Griffin-ek osatzen duten taldeak urte amaiera bitartean inguruotan hainbat kontzertu eskainiko ditu. Besteak beste: urriaren 15ean eta 16an Kursaal (Donostia), abenduaren 1ean Principal Antzokian (Gasteiz), eta abenduaren 6, 7 eta 8an Euskalduna Jauregian (Bilbon). Dagoeneko hainbat leku zein egunetarako sarrerak agortu dira, horrenbestez, zuhur ibili!

Sarrerak: [www.kutasarrerak.net](http://www.kutasarrerak.net)  
[www.vitoria-gasteiz.org/teatros](http://www.vitoria-gasteiz.org/teatros)  
[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

## liburua > eskorbuta

Uda partean plazaratu zuten *Rock y violencia* Eskorbuto taldearen gaineko bi liburukiko lana. Lehenengo liburukiak taldearen hastapenak eta 1986 bitarteko ibilaldia jasotzen du, bigarrenak 1987tik aurrerakoa. Zaramaren lehenengo pausoak, Eskorbuto Eskizofrenia Rock, Madrileko atxiloketa, Martxa eta Borroka, Anti Todo, zentsura, boikot-a, Mexikoko kontzertuak, ibilaldi barria e.a. 600dik gora orrialdetan santurtziko taldearen kontzertuak, diskografia, bitxikeria, amaitu bako egitasmoak, adierazpenak e.a. batzen dira, berba horiek laguntzen dituzten 300 argazki baino gehiagorez. 20 euroko prezioa du lanak eta sarearen bidez eskura daiteke.

Info+: [www.wcdiscos.com](http://www.wcdiscos.com)

## EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

## diskoak

**The war of the species**  
Wilhem&the Dancing An..  
Origami Records



Helen (Donostia) eta Guille (Iruñeko Antigua y Barbuda taldeko bateria jolea; orain perkusioa eta gitara) dira Iruñeko Wilhem&the Dancing Animals taldearen arima; Iñigo (gitarra), Have (Mandolina), Josh (baxua) eta Kikok (bateria) osatzen dute taldea. Bederatzi kantu jasotzen ditu lehenengo lanak. Urriaren 20an Bilboko Azkena aretoan joko dute.

**Bi pauso**  
Bluestock  
Hotsak



Zarautzen sortutako blues eta rock taldearen kanta gehienak originalak dira, hainbat bertso ere jasotzen ditu diskoak. Esaterako letretan, maitaleak abandonatu duenaren samina, debekatuaren tentazioan erortzeko erakarritasun ezinezkoa, musika ihesbide eta esperantza, garai bateko Mississippi-ko blues jotzaileen nostalgia e.a. dira gaietako batzuk.

**Zuloak**  
Zuloak  
Tarka Records and Films



Zuloak filmaren soinu banda aurkeztu dute irail erdialdean, eta horregaz batera, hori jasotzen duen *Zuloak* diskoa ere bai. Bonberenean grabatua da, Karlos Osinaga Txapen laguntzagaz, estudioko 10 abesti eta zuzeneko beste 3 jasotzen ditu. Beste talde batzuetan dihartuten musikariek osatu da Zuloak punk-rock andrazko taldea, dokumental-filma egiteko.

etorri  
eta  
ikusii!!

**MORIXA**  
Liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kalegoz bar) / Tf. 94 491 68 05 / Algorta

## Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu  
**%50eko**  
deskontua  
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00  
(15 eguneko epemuga)

**I**

# Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

## Berbaldia Algortan

Uribe Kostako Irakurzaleen Txokora **Ur Apalategi** gonbidatu dute

**Iparra galdu gabe** jardunaldiakaz bat eginez, Ur Apalategi (Paris, 1972) idazlea izango da hilaren 23ko Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoko gonbidatua. Egizuk mamitzen dituen literatur berbaldiotan, ohi legez, idazle bat gonbidatzen dute bere liburu baten gainean jarduteko. Oraingoan, Apalategik *Fikzioaren izterrak* (2010, Susa) ipuin-liburuaren gainean jardungo du. Lan horregaz, Euskadi Literatura-Saria irabazi zuen iaz, Euskarazko Literatura atalean. Ipuin liburuaren barrenei dagokienez, labur-labur, hurrengo azaltzen du: *“Zazpi ipuin hauek fikziozkoak izan arren, errealitate hurbilaren ispilu dirdiratsuak dira; sarritan irudi olgetari eta trufatzailleak islatzen dituztela irudituko zaizu, baina gertakariak eta gerta-*

**«Urriaren 23an, 20:00etan, Aldai Patronatuan izango da berbaldia»**

*garriak gertu daudela erakusten dute beti”.* Jardunaldien eskuorrian adierazten denez, *“ipuinak ederto erakusten dituzte euskal literaturaren munduan dauden giza harremanen ezkutuko kontuak, baita gure nortasunaren biziraupenerako beste funtsezko atal batzuetan daudenak ere...”*.

Maite Idirinen eta Jokin Apalategiren



Ur Apalategi

semea, Euskal Filologian doktorea da, Zuzenbidean eta Letra Frantsesetan lizentziaduna. Paue eta Aturriko Herrietako Unibertsitatean Euskal Literaturako irakasle da jardunez, eta idatzitako lehenengo lana *Gauak eta hiriak* (1997, Elkar) nobela izan zen, Beterriko Liburu Saria jaso zuena. *Gure Gauzak S.A.* (2004, Utriusque Vasconiae) euskal argitaletxeen gaineko intrigazko nobela polemikoak, *La naissance de l'écrivain basque* (2000, L'Harmattan) eta *Belaunaldi literarioak auzitan* (2005, Utriusque Vasconiae) saiakerak eta *Erdi guneak* (1995, Maiatz) poesia lanak osatzen dute, besteak beste, bere obra. ○

liburuak



**Saski bete intxaur**  
Patziku Perurena  
Alberdania

Saiakeratzen aurkeztu dute mota askotako lanak, gaiak batzen dituen liburua: egunero bizitza eta irakurketen kritikak eta gogoetak, gure prentsa, kulturaz, literaturaz, politikaz, dantzaz, bertsolaritzaz, kirolaz, sexuaz, utzikeriaz, hipokresiaz, ijitokeriaz baita ijitotasunaz ere, e.a.




**Erregearen mezularia**  
Toti Martinez de Lezea  
Erein

Josu Zabaleta Kortabarriak itzuli du 12-16 urtekoentzat gomendaturik dagoen Larra-betun bizi den idazlearen lana. Santxo VII.a Azkarra, Nafarroako erregea Marokon dela, Gasteizko hiria setiatuta, Otxoa Izurak aurkitutako eskuizkribu misteriotsua... nahasten dira traman.

[kirola]

## Itsasoz itsaso lotu barik

**Basurko eta Aceroren proiektuek** bat egin, eta **elkarregaz** abiatuko dira itsaso zabalean



Aurreikuspenen arabera martxoan lehorreratuko dira Euskal Herrian

**Pakea Bizkaia**, barriro ere, prest da itsasoan barrena bidaiatzeko. Oraingoan baina, Basurkok ez du itsasoa bakardadean zeharkatuko; izan ere, hainbat bidaide izango du, besteak beste, Kepa Acero surfari getxoztarra. Espedizioaren xede nagusia, aurrekoetan bezalaxe, itsas-biodibertsitatea aztertzea izango da. Lehenagoko bidaietan ez bezala, oraingoan, barriz, Basurkok hegoalderantz joko du, eta hiru etapa osatuko ditu; lehenengoan, Bilbotik atera eta Argentinaraino helduko da, Necochearaino hain zuzen ere. Lehenengo etaparen geldione horretan bertako eskola bisitatuko dute. Bigarren etapan, ostera, Valdes penintsulara abiatuko dira, ondoren Txile, Magallanes, Ushuaia, eta azkenik Antartidako uretan murgilduko dira. Azkenengoan, ordea, etxerako itzulia baino ez zaie lotuko.

Kepa Aceroz gainera, badira Basurkori bidaiari lagunduko dioten beste hainbat lagun ere; barbarako, EHUKo Nautikako sei ikasle itsasoratuko dira Pakeanen. Horrez gainera, Pakeaneko Hezkuntza Koor-

dinatzailea, biologo bat, argazkilariak, nabigatzaileak, suhiltzaile bat, itsas-ingeniarria eta irakasleek ere abenturan parte hartuko dute. Hasiera batean, 80 ziren espedizioa joateko hautagaiak; halere, 6 hilabetez proban egon ostean, eta hautaketa gogorra eginda, bakan batzuek soilik izango dute Basurkogaz bidaiatzeko aukera.

**“Acero abenduaren 31n itsasoratuko da belaontzian, Ushuaian”**

Itsasontzia urriaren 7an aterako da Euskal Herriatik tripulazioagaz batera, eta aurreikusituz, sei hilabete ondoren bueltan izango da. Acero free-surfaria, barriz, Ushuaian itsasoratuko da Pakea ontzian abenduaren 31n, Amunsen itsasoan olatua hartzeko asmoagaz. Erronka hori “5 ITSASO” proiektuaren baitan kokatu du getxoztarrek. Nahiz eta erronka zaila izan, mundu mailako olatua hartzen saiatuko da Acero. Ez du lan erraza izango gero; guk bidaia ona opa diegu, laster arte! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kizol moda**



**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris, s.l.**



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

**Lander Unanue** > Shanghai

“Neska eta mutil-lagunen ‘merkatua’ oso bitxia da”

Orain dala 6 urtetik gora hasi zen txinera ikasten Lander Unanue sopoloztarra (Bilboko denda txinatar bateko atzealde ilunean ere jaso izan zituen eskolak). Horren aurretik, tai ji ikasten ere ibili zen Sopelan. Horrela hasi zen bere harremana Txinatar herriagaz, azkenean, hara joatea ametsa bihurtu arte. Orain urte bi erabaki zuen irakasle lana utzi eta ametsa egia bihurtzea; Mondragon Unibertsitatean irakasten zuen telekomunikazioetan ingeniari. Ez daki Txinan zenbat denborarako geratuko den, baina argi dauka arinago edo beranduago Euskal Herrira itzuliko dela.



Larrabasterratik Shanghaira joan zen Lander Unanue orain urte bi. Irakasle lana utzi eta abentura barriari ekin zion.

#### Zer bisitatu eta zer ez galdu

Txinako hiri modernoa izanik, ez pentsa tenplurik eta harresirik aurkitzerik Shanghain, kontrakoa: eraikin moderno, luxuzko marken denda eta taxiz betetako errepideak ditu eta, horien artean, bizikleta erdoilduak. Kontraste handiko hiria da eta da Txinaren benetako isla; bai, agian, etorkizunarena.

#### Zer ez galdu

The Bund ibaiertza da ohiko argazkia, eta neska eta mutil-lagunen ‘merkatua’ oso bitxia da! Bertan biltzen dira gazteen gurasoak euren seme-alabak alkartu guran. Lagun txinatarrik edukiz gero karrakera joatea aukera ona da! Halakorik! Goiz jaikiz gero eguna aprobetxa dezake-

zu eta edozein parketara joan zaitezke tai ji zelan praktikatzen duten ikustera.

#### Zer jan

Zotzakaz gosalduta, bazkalduta eta afaltzen dute, eta hainbat herrialdeetako jate-txez beteta dago (kontinente guztietakoak). Halan da be, Txinako probintziatarren jatetxeak nahikoa daukazu: arroza ogiaren orde; *dumpling* eta *noodle*-ak, mota eta forma guztietakoak; barazkiak barra-barra; eta ez pentsa txuleta edo okelarik jango duzunik. Baina dena oso gozoa!

#### Kontuz!

Iruzur tipikoak. Adibidez, ezagunetakoa: tea hartzeraz gonbidatu eta kontua puztu egiten dute. Dena negoziatzen da, beraz hobe da prezioaz informatuta egotea: 10 balio duena, 100 edo gehiagotik hasten baitira.



#### Nor da

**Nongoa**  
Sopelakoa (Larrabasterra)

**Adina**  
28

**Zertan dabil**  
Komertzial lanean dabil euskal kooperatiba batentzat

**Ikasketak**  
Telekomunikazioetan ingeniaria, Mondragon Unibertsitatea

**Zenbat denbora Shanghain**  
Urte bi daroa eta ez daki noiz itzuliko den Euskal Herrira, baina ziur da bueltatuko dela

#### Non dago

**Lurraldea**  
Txinako Herri Errepublikara

**Erljioa**  
Ofizialki herrialde ateoak

**Hiria**  
Shanghai, Pekin hiriburutik 1.318 km-ra

**Kokapena**  
Txina ekialdean, kostaldean

**Azalera**  
6.340 kilometro koadro

**Biztanleria**  
20 milioitik gora

**Hizkuntza**  
Mandarin txinera (ofiziala) eta wu edo shangaiera

**Metroa**  
12 linea eta urtero hedatzen da

# Aurrerantzean, harpidetza ordaintzen ez dutenek, ez dute UK etxeko postontzian jasoko.

**UK-k ezin ditu kostu horiek bere egin.**  
Oharra: Halere, gune publikoetan (adib.: kultur etxeak) zein kioskoetan eskura dezakezue UK

Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.





[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



**portu zaharra bar**

Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



**SOLAETXE**

Eguneko menua **Jatetxea** Karta  
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



**La Triangu.**

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



**berezi**

Hanburgesak Ogitartekoak  
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



**BODEGUILLA BUTRON**

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
94 430 01 74  
www.bodeguillabutron.com



**txakoli mota gane tx**

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



**UNAI TABERNA**

C/ Alangobbarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



**CAFETERIA COSMOPOLITA**

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo  
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



**JAN-TOKI ORMAZTEAL**

Eguneko menua  
Menu bereziak  
Karta  
Erreserbak:  
94 476 2389  
607 21 89 61  
LUTXANA-ERANDIO



**GURE ETXEA taberna**

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



**Asador Cervecera BERANGO**

Oilasko erreak, indabak, txulettoa, arraina trianguetan  
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak  
Pollo asado, txulettoa, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad  
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO - Erreserbak 658 89 56 93 - Tf. 94 668 13 34



Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

**94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**

[pintxotan]

## Bertakoa eta begetala

Piperradaren bizitasunagaz



Barazkijaleentzako pentsatutako mokadutxoa

**Pintxo-mota barriakaz** hasi dugu ikasturtea, aurreko zenbakian azaldu bezala: asmoa da jakiak osasungarri bihurtzea, erantsitako koipe barik, baita barazkijaleengana hurbiltzea ere. Ildo horretan sortu da gaurko pintxoa, soloko produktu natural eta freskoakaz, kalitate ona bermatu guran.

Pintxo honetarako erabiliko ditugu kalabazina, patata, tomate, arrautza eta piperrada. Lehenengo patata eta arrautza egosiko ditugu. Tentuz ibili behar da patata egosterakoan eta puntua hartu behar zaio, ez badugu apurtzerik nahi muntatzean.

Piperrada ere aurretik prestatu behar da berorik gal ez dezan pintxoa atera orduko, eta egoste-puntuagaz ere adi

ibili beharra dago. Behin lanok eginda, kalabazina xerratan moztu eta arrautzaz-tatu behar da, segidan oliba-oliotan fritzeko. Eta kito! Orain bai, daborduko pintxoa prestatzen has gaitezke!

Kalabazina izango da plater gainean ipiniko dugun lehena: xerra bat. Eta haren ostean hasiko gara gainontzeko osagaiak ipintzen, xaflatan guztiak, bata bestearen gainean: patata egosia, tomate freskoa eta arrautza.

Azkenik, mokaduari bizipoza emongo dion osagaia ipiniko dugu bere gorenean edo gailurrean: piperrada apur bat. Zapore eta kolore bizia eskainiko dio: kontuz piper minik harrapatuz gero!

**Osagaiak: patata, kalabazina, tomate freskoa, arrautza eta piperrada.**



**LAIAK Taberna**



**BASARTENA**

**URDULIZ**

Teléfono: 946 761 128

**JUAN-MARI**



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!  
Alangobbarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI edantokia**  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93



**prentsa • aldizkariak**  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Ariiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO



Torrene 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com  
**OPARIAK MODA GAZTEA**

**GOIZEAN**



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak  
Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
Tf. 94 430 22 13      Tf. 94 460 02 88  
GETXO      ALGORTA

**Turikaldai**



JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T. 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T. 400 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

[horoskopoa]

**URA**



**(Abenduak 21 urtarrilak 19)**  
Ez da erraza izan ikasketetara bueltatzea hainbeste denboraren ostean, baina primeran egokitu zara. Orain segi ikastera, hobe duzu-eta lanak egunean erotatea.

**OTSOA**



**(Urtarrilak 20 otsailak 18)**  
Kosta zaio, baina badirudi azkenean udak agur esan duela eta hasi dela freskatzen. Hotza gustuko duzue azkar asko moldatuko zara urtaro barrira, baina kontuz, ez gaixotu!

**ADARRA**



**(Otsailak 19 martxoak 20)**  
Supermerkatuan enkargua egin dizute gurasoek, baina sekula ez zara joan zu bakarrik. Non dago arroza? Eta esnea? Abentura mordo pasatuko duzu pasabideetan galduta.

**AITZURRA**



**(Martxoak 21 apirilak 19)**  
Maitioagaz opor-egunak hartuko dituzu eta primeran pasatuko duzue biok bakarrik... harik eta senideak agertu arte. Segi azkar eta despistatuko dituzue!

**HOSTOA**



**(Apirilak 20 maiatzak 19)**  
Azkenean lortu duzu lantxo bat, baina esan dizutenek, hanka sartuz gero ez dizute barkatuko. Hartu arnas eta lasaitu, lan eskasia ez baita aitzakia inor esplotatzeko. Defendatu zeure eskubideak!

**EGUZKIA**



**(Maiatzak 20 ekainak 18)**  
Udazkeneko haize epelak txoratuta? Opor-osteari segitu dio haizeak eta zorabiatuta zabilza, burua galduta. Tentuz ibili eta ipini arreta egiten duzun lanetan.

**GARIA**



**(Ekainak 19 uztailak 18)**  
Hauteskondeak izanagatik ez diozu hutsik egingo urtereko hitzorduari eta Nafarroa Oinezera joango zara Iruñera. Primeran ibiliko zara, eguraldi ederrak lagunduta. Ez galdu bueltako autobusa!

**LASTOA**



**(Uztailak 19 abuztuak 17)**  
Udako jaiak amaituta plan gitxiagorako aukera dago orain. Horregatik, Uribe Kostatik urrunago joan beharko duzu festa bila. Lasai, gertu daude Basauri eta Durango!

**IRATZEA**



**(Abuztuak 18 irailak 16)**  
Kristoren kolore beltzarana hartu zenuen udan, baina daborduko kendu zaizu. Luzatu guran solariumera joango zara eta, a zer pagotxa! Krisia dela, sasoia dela, deskontua egingo dizute. Zorionak!

**META**



**(Irailak 17 urriak 16)**  
Udazkeneko lehen egun freskoak batera harrapatu zaitu hotzeriak, udako nostalgiko horrek! Hartu mantaxoa eta etzan sofán, behingoagatik utziezu ingurukoie zu zaintzen.

**HAZIA**




**(Urriak 17 azaroak 15)**  
Urteurrena ospatzeko asteburu zoragarriako plana egin duzu lagunakaz, baina batzuek atzera egingo dute. Azken uneko sorpresaren bat prestatuko dizute agian?

**NEGUA**



**(Azaroak 16 abenduak 20)**  
Zozketa batean parte hartuko duzu aspaldiko partez, baita irabazi ere! Sariaren bila joan, baina ez da izango uste bezain ona. Aizu, konforma zaiten! Irabazita ere muturtuta ibili behar duzu ala?



Kopiak  
**SALGAI**  
UK aldizkariaren  
bulegoan




Uribe Kostako  
aldizkariaren  
ekoizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuma

1. Ehiera zaintzen du, errotazain. 2. Bokal bako hesi. Maurice Ravel musikari lapurtarrarena da ezagunena. 3. Arnasa hartu ezinik hil. Bizkaiko udalerria, Mungialdean. 4. Zinema. Beldur handi. Iodoaren ikur kimikoa. 5. Arriskuen barri emoten duten seinaleak. Lotan. 6. Musika nota, eskalan seigarrena. Ipar Ameriketako indiarren oinetako. 7. Kontsonantea. Pilotaz mintzatuz, paretaren eta luraren arteko zokoan jotzen duela. Anaia. 8. Edukitzez, ukaitez. Behorra arreske. 9. Berbaz adierazia, aipatua. Antzinako Egiptoko jainkoa. 10. Koska ugari dituzte.

Goitik behera

1. Ehiza-saioak. 2. Putzua. Arrazoi. 3. Hidrogenoaren ikur kimikoa. Zintzoa. Sagar, mahats eta antzeko fruituak sakatu ondoren gelditzen den hondar edo hondakin. 4. Europar Batasuna, labor adierazita. Baselizak. 5. Zerrenda. Etxebizitzetako zolak nahiz paretak estaltzeko ehun lodia. 6. Atseginak. Tente. 7. Zituen. Arsenikoaren ikur kimikoa. 8. Arkitektura izaerako egitura. Dozena erdi. Uranioaren ikur kimikoa. 9. Atomo kargadun. Frantziako diru zaharra. 10. Nazioari dagozkionak.

Soluzioa

K	V	U	S	T	A	K	S	O	K
V	R	V	U	T	V	T	I	V	
L	E	I	E	V	E	I	Z	I	
V	B	E	N	K	I	P			
N	I	S	A	K	O	W	V	A	T
O	L	K	V	W	R	A	L	V	A
I	U	Z	I	E	N	I	Z		
Z	I	K	U	L	A	O	T	I	
V	R	O	L	E	R	O	S	H	
I	N	V	Z	A	I	N	E	I	H

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein da argazkiak eta literatura buztartzen dituen Getxon sortu den lehiaketaren izena?

> Aurrekoaren erantzuna: Berango kanposantuko sarrera  
> Irabazlea: **Aitor Etxebarria**  
\*deitu telefonoz: 944 911 337

**SARIA** **Argia**  
astekariaren biru hilabeteko harpidetza doan

*Zein da UK-ko atal barriaren izena?*

- **UKanoak**
- **MundUKatuak**
- **MundUKan**

> Aurrekoaren erantzuna: Udagoiena  
> Irabazlea: **Laida Fuertes**  
\*deitu telefonoz: 944 911 337

**SARIA** **berria**

“zinema etxean haurrentzako DVD filmen laugarren bilduma”



JOSE A. BILBAO "TXIRRI"K UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

**GETXOTIK SONDIKARA, 1952**

**Elxalde** Getxoko Arteaga auzotik Sondikako Santa Luzia auzora zehatzagoak izateko, hori izan baitzen gazte umoretsu hauen bidaia-turistikoa, gurdi gainean eta zaldiari (Enrique Fernandez esne-saltzailearena) tiraka. Beraien artean Boni Fernandez txistulari bilbotar famatua dugu, Felix Yurrebaso eta "Txirri"ren laguna zelako, Santanderren soldaduska elkarregaz egin zutenetik.

Ardo-txanbila eta etxean prestatutako janaria hartu, eta horrela joan ziren hiruzpalau urtetan Sondikako erromeriara zaldi berberagaz; hori bai, gurdia eta zaldia lorez apainduta. Bidean geldialdiak egiten zituzten, zaldiak indarra berreskura zezan eta gazteek ardo tragoska batzuk har zituzten. ○


**Ezkerretik hasita:** Zaldia "La Jaca", Jose A. Bilbao "Txirri", Enrique Fernandez (GB), Luis Madariaga "Soca" (GB), Boni Fernandez (txistularia) (GB), Txomin Bilbao (GB), Mariano Cayero (GB), Felix Yurrebaso (GB).

UK-ko  
hainbat langilek  
bat egin genuen  
grebagaz

# ARGI *hizkiak*


*15 irudi, 30 begirada*

Urriaren 9tik 31ra  
*Torrene Aretoa, Algorta*



# TEATRO GEIXO 2012 Antzerkia

XXX. Getxoko Antzerki Jardunaldiak  
XXX Jornadas de Teatro de Getxo  
Urria 11-21 Octubre



sarrerren salmenta  
venta de entradas

orotarako kutxazimelan  
en cajeros multiservicio

944 310 310

www.bbk.es

bbk